

Zuzenbidea Derecho

Latinezko
Esamolde
Juridikoak



Deusto

Latinezko Esamolde Juridikoak

Latinezko Esamolde Juridikoak

Andres Urrutia Badiola / Cesar Gallastegi Aranzabal

Zuzenbide Fakultateko irakasleak-DU

Arantza Etxebarria Iturrate

Terminologoa-DU

2012

Deustuko Unibertsitatea

Bilbao

Minor Bilduma, 8. zk.

Liburu hau Hezkuntza, Unibertsitate eta
Ikerketa Sailaren laguntzaz argitaratu da.



HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

Lan honen berregintza, banaketa, komunikazio publiko edo moldaketaren bat egiteko, ezinbestekoa da egileen baimena izatea, legeak ezarritako salbuespenetan izan ezik. Lan honen atalen bat fotokopiatu edo eskaneatu behar izanez gero, jo eza-zu CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.cedro.org).

- © Egileak: Arantza Etxebarria Iturrate,
Cesar Gallastegi Aranzabal, Andres Urrutia Badiola
Sarrerak: Santiago Segura Munguía,
Maria do Carmo Henriquez Salido
Oharrak: Esther Urrutia Idoiaga
- © Euskal Gaien Institutua. Deustuko Unibertsitatea
1. postakutxa - 48080 Bilbo
www.deusto.es
publicaciones@deusto.es

ISBN: 978-84-9830-405-3

Aurkibidea

Atarikoa	9
Sarrerak	13
Sarrera (I): Latinezko esamoldeak, kulturaren adierazpide <i>Santiago Segura Mungúa</i>	15
Sarrera (II): Latinezko esamoldeak, justizia auzitegietako jardunean <i>Maria do Carmo Henríquez Salido</i>	17
Latinezko esamoldeak zuzenbiderako	37
Euskararen ikuspuntua	39
Latina/euskara zerrenda	71
Bibliografia	87

Atarikoa

Hona hemen Deustuko Unibertsitateak argitaratzen duen Minor Bilduma izenekoaren zortzigarren uzta. Bilduma horretan, lege testuak, berbategi juridikoak eta zuzenbidea euskaraz aztertu eta lantzeko bestelako lanak jasotzen dira. Lan-ildo horri jarraipena emateko asmoarekin, irakurleak esku artean du eremu juridikoan ohikoak diren latinezko esamoldeei buruzko lana, hain zuzen ere, euskararen ikuspuntutik abiatuta.

Horretarako, liburu honetan bi hitzaurre daude. Alde batetik, latinismoen esangura orokorra aztertzen da kultura-adierazpen moduan, eta, bestetik, mundu juridikoan latinismoen erabilerari erreparatzen zaio, justizia-auzitegietan eta agirietan duten erabileren adibide zehatzak emanda. Jarraian, latinismoei buruzko ideia nagusiak lantzen dira euskararen ikuspuntutik, eta nola idatzi behar diren ere aztertzen da. Ondoren dator mundu juridikoan erabilitako latinezko adierazpen garrantzitsuenen zerrenda, zazpiehun sarrera inguru, eta euskaraz duten esanahia azaltzen da; oro har, hitzez-hitzezko itzulpena ematen da, izan ere, hori nahikoa izaten da irakurlea esamoldearen zentzuaz jabetzeko. Amaitzeko, gaiari buruzko bibliografia orokorra eskaintzen da.

Aurreko argitalpenetan adierazi bezala, lan hauek egiteko orduan, mota guztietako irakurleak hartu dira kontuan. Batetik, zuzenbideko

ikaslea, unibertsitateko eskoletan diziplinaren berezko terminologia barneratu behar duena. Bestetik, berbategi hau interesgarria izan daiteke euskaraz eta gaztelaniaz lan-munduan aritzen direnentzat, baita legelari, funtzionario eta itzultzaileentzat ere, alegia, eguneroko lanean espezialitateko hitzak bi hizkuntza ofizialetan erabili behar dituenentzat. Era berean, berbategi hau kazetaritzako profesionalei eta, oro har, euskarazko irakurle guztiei zuzenduta dago.

Gure asmoa horiei guztiei tresna baliagarri eta zehatza eskaintzea izan da. Horretarako, zailtasunak ekar ditzaketen alde teknikoak baztertu ditugu. Beraz, lan honek euskaldunari tresna berriak eskaini nahi dizkio zuzenbide arloan maiz erabiltzen diren latinezko esamoldeen inguruan.

Argitalpen hau terminologia juridikoari eta teknologia berriei buruzko ikerketa bati lotuta dago. Lan horretan, Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Sailak duen Euskara Sustatzeko Zuzendaritzaren ezinbesteko laguntza izan dugu, eta, horrenbestez, gure esker ona adierazi nahi diogu. Baita ere, eskerrik beroenak Esther Urrutia ohargileari eta liburuaren bi sarrera egileei —Santiago Segura eta Maria do Carmo Henriques—, erakutsi duten eskuzabaltasunagatik.

Amaitzeko, hiztegitxo hau irakurlearentzat nola edo hala erabilgarria izan dadin nahiko genuke. Gure asmoa hori baino ez da izan.

Egileak

Sarrerak

Sarrera (I)

Latinezko esamoldeak, kulturaren adierazpide

Mendebaldeko kulturean, literaturaren hastapenetan, esaldien eta aforismoen bilduma batzuk agertzen dira. Horiek, hitz gutxi erabiliz, pertsonaiarik ospetsuenen ideiarik bikainenak edo ezagunenak adierazi nahi dituzte.

Hipokratesen irakaskuntzetan aforismo ugari agertzen dira, eta Bibliatik ere asko iritsi zaizkigu. Aforismo horietako batzuk grezieraz adierazi ziren, eta geroago latinez.

Antzinako eta Erdi Aroko egileek latinaren molde zehatz eta dotorea erabiliz transmititu zuten esaldien sorta zabal hori. Errenazimentuko humanistek, aforismoek, atsotitzek, erretrauek, esaerek eta printzipio juridikoek erakusten duten jakinduria baliotsu hori, kultura zein herrikoa, handituz jarraitu zuten mende luzez.

Errenazimentuan aforismoen eta esaeren bilduma ugari egin ziren, literaturan erabiltzeko. Kasu batzuetan, erretrauak antzinako iturrietatik zuzenean sortzen dira; beste batzuetan, biltzaileak jatorrizko testua manipulatu edo egokitzen du zehaztasun edo adierazkortasun handia-

goa lortzeko. XVI. mendetik aurrera gai horren inguruan hainbat lan argitaratu ziren eta ospe eta zabalkunde handia lortu zuten.

Gaur egungo aipamen gehienak hizkera juridikoari dagozkio. Adierazpen horiek gaur egungo literaturan asko aipatzen dira eta hizkuntza kultu guztietan orokortu dira. Esaldi horietako asko hizkera diplomatikoan eta politikoan agertzen dira, baita beste hizkera berezitu batzuetan ere.

Lan honetan, mundu juridikorako garrantzitsuenak diren adierazpenen hautaketa egin da. Berrikuntza nagusia latinaren eta euskararen arteko hurbilketa egitea izan da.

*Santiago Segura Munguía**

* Santiago Segura Munguía jauna latineko katedraduna izan da eta gaur egun Deustuko Unibertsitateko irakasle emeritua da. Latinaren inguruko hainbat eta hainbat liburu argitaratu ditu, hala nola, irakaskuntza-metodoak, irakurtzeko testu elebidunak eta ikerketak.

Sarrera (II)

Latinezko esamoldeak, justizia auzitegietako jardunean¹

1. Sarrera

Europa mendebaldeko legelariak latinez idatzi zuten XIX. mendeko lehen hamarkada arte. Orduan etorri zen «Napoleonen lan magistrala, 1804 eta 1810 bitartean (Kode Zibila, Merkataritza Kodea, Zigor Kodea, Prozedura Zibilekoa, Prozedura Kriminalekoa)»². Hala ere, hizkuntza klasiko horrek «lege arloko kontzeptu eta erakunde nagusien esangura aberasteko iturri agorrezina izaten»³ jarraitzen du, eta hori

¹ Lan hau «Latinismoak Auzitegi Goreneko ebazpenetan» ikerketa zientifikoaren proiektuaren barruan sartzen da. Hain zuzen ere, aurreko hori Oinarrizko Ikerketa Proiektuen Programa Nazionalaren barruan aurkeztu zen, Ikerketa Zientifiko, Garapen eta Berrikuntza Teknologikoaren VI. Plan Nazionalan (BOE, 2009ko abenduaren 31a). Vigoko Unibertsitateko Gaztelaniako Departamentua ari da lan hori gauzatzen.

² GARCÍA DE ENTERRÍA, E.: *La lengua de los derechos. La formación del derecho público europeo tras la revolución francesa*, Alianza, Madril, 2001, 187. or.

³ MARTÍN DEL BURGO Y MARCHÁN, A.: *El lenguaje del Derecho*, Bosch, Bartzelona, 2000, 236. or.

gutziz nabarmena da justizia auzitegien ebazpenak (aurrerago Konstituzio Auzitegiarekin eta Auzitegi Gorenarekin egingo dugu) eta Erregistroen eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusiarenak aztertzen direnean (hona hemen adibide batzuk: *iure soli*, 1992-5-8ko Ebazpena, 1992/4844 EJ; eta *numerus apertus*, 1987-6-5eko Ebazpena, 1987/4835 EJ).

Latinezko esamoldeek garrantzi handia dute, ez Iberiar penintsulan bakarrik, baita Europako Erkidegoko beste herrialde batzuetan ere. Masson & Duparc-Portier-ek⁴ *Cour de justice des Communautés européennes* delakoan latinaren erabilerari buruz egindako ikerketatik ondorioztatu dute Europako Erkidegoko herrialdeetan, *Civil law* eta latinetik zuzenean etorritako hizkuntza dutenetan (Frantzia, Belgika, Luxenburgo, Italia, Portugal, Espainia, Grezia eta, bitxia bada ere, Herbehereak), «latina modu masiboan erabiltzen dutela»; germaniar tradizioko herrialdeetan (Alemania, Austria eta, neurri txikiagoan, Danimarka, Suedia eta Finlandia) latina modu osagarrian erabiltzen dute, eta aipatu ez diren herrialdeetan latina gutxi erabiltzen dute. Beste datu interesgarri batzuk dira hitzen zerrenda, maiztasuna eta esanahi juridikoa ez direla berdinak testuetan, ez antolamendu juridikoaren adar desberdinetan, ezta Europako Erkidegoko herrialde guztietan ere; adibidez, *ultra vires* esamoldeak (1993ko Euskal Herriko Kooperatiba Legea, 4/1993 Legea, ekainaren 24koa) esangura desberdina du Frantzia eta Ingalaterran⁵.

Eta, Mattilaren⁶ azterketaren bidez, Europako herrialde batzuetako legelariak lehen baino latinismo gutxiago erabiltzen dituztela ondorioztatu da (azterketatik ondorioztatu da berrogeita hamarreko hamarkadan

⁴ MASSON, A. eta DUPAC-PORTIER, P.: «Usages et réflectivité du latin à la Cour de justice des Communautés européennes», *Revue trimestrelle de droit européen*, 43. zk. (4), 2007ko urria-abendua, 619. or.

⁵ MASSON, A. eta DUPAC-PORTIER, P.: in *ibidem*, 620. or.

⁶ MATILLA, H.: «Los cambios del lenguaje administrativo y jurídico en el mundo de hoy. Un balance comparativo de los últimos veinticinco años», *Revista de Lengua i Dret*, 51. zk., 27-29. or.

Finlandiako legelariak latinezko 900 adierazpen inguru erabiltzen zituztela, eta laurogeita hamarreko hamarkadaren inguruan 600 inguru). Ikertzailearen esanetan, joera hori «ez da argia», izan ere, Ipar Amerikako jurisprudentziaren inguruan egindako ikerketa batetik ondorioztatu da termino batzuen erabilerak, adib. *ratio decidendi* (1987-6-11ko epaia, 1987/4875 EJ, administrazioarekiko auzien arloa), «gora egin duela Estatu Batuetako goi mailako auzitegien epaietan», eta gora egin duela baita ere Estonian (1993-2002 aldian) eta Polonian.

Lan honetan *latinezko esamoldeak* (edo *latinismoak*) aipatzen ditugunean «jakitearen eta lanbide- jardueren esparru desberdinetan» erabiltzen diren latinezko hitz eta esamoldeei buruz ari gara⁷. Hitz eta esamolde horiek jatorrizko grafia izaten dute (edo gaztelaniara egokitzapen txikiak eginda izaten dituzte), eta Erromako hizkuntzan irudikatzen zuten adigaia izendatzen dute, eta, zehatz esanda, *Zuzenbide Erromatarrean* edo *Digestoan* zeukaten kontzeptu juridikoa. Unitate horietako asko testuen bildumetatik edo erromatar legelarien lanetako pasarteetatik aterata daude (Ulpiano, Papiniano eta Paulo), beste batzuk ondorengo zuzenbidean sortzen dira (Accursioren gandik aurrera, c. 1185-c. 1260), eta batzuk xx. mendearen bigarren erdian sortzen dira, hala nola, *fumus boni iuris* lokuzioa (62/1996 KAE, 5. OJ). Masson & Duparc-Portier-en⁸ ustez, lokuzio hori 1959. urtean sortu zen (horren sortzailea M. Giacinto Bosco italiar epailea izan zen).

Unitate horiek hitz bakarrekoak izan daitezke, hala nola, *factum* (1991-6-26ko epaia, 1991/4818 EJ, zigor arloa), *litis* (16/1995 KAE, 5. OJ), *potestas* (1992-1-11ko epaia, 1992/4874 EJ, Administrazioarekiko Auzien Auzitegia), *vis* (1992-6-9ko epaia, 1992/4894 EJ, zigor arloa); edo zenbait hitzekin osatuta egon daitezke, eta hitz horiek talde sintaktiko zatiezina osatu. Azken horien barruan hurrengo hauek bereizten dira: «izen lokuzioak», izen baten eginkizuna betetzen du-

⁷ DRAE: *Diccionario de la Lengua Española*, Espasa-Calpe, Madril, 1. lib.

⁸ MASSON, A. eta DUPARC-PORTIER, P.: in *ibidem*, 613-615. or.

tenak, hala nola *modus operandi* (1991-6-26ko epaia, 1991/4818 EJ, zigor arloa); «adberbio lokuzioak», adberbioaren eginkizuna dutenak, hala nola *ad libitum* (1993-6-4ko epaia, 1993/4815 EJ, zigor arloa); «adjektibo lokuzioak», adjektiboaren eginkizuna betetzen dutenak, adibidez *sine qua non* (118/1989 KAE, aurrekariak); eta «esaldi lokuzioak», «subjektua» eta «predikatua» harremanetan jartzen dituzten segmentuak, esaterako *iura novit curia* (1991-10-24ko epaia, 1992/4884 EJ, administrazioarekiko auzien arloa) eta *lite pendente nihil innovetur* (1993-6-16ko epaia, 1993/4839 EJ, arlo zibila), edo esaldi nominalen egitura dutenak, adibidez *tantum devolutum quantum appellatum* (120/1989 KAE, 1. OJ) edo aditzik gabeko adberbio esaldiak, barbarako *in dubio pro actione* (125/1987 KAE, 6. OJ). Esaldi lokuzioen taldean sartzen dira legelariak «aforismo», «apoteigma», «erregela juridiko» deitzen dituztenak. Horiek «antolamendu juridikoetan sartu dira zuzenbideko printzipio orokorren bidez; integrazio-eginkizun garrantzitsua dute eta kode nazionaletara bilduta daude»⁹.

Ezaugarri nagusien artean, hurrengo hauek aipatu behar dira: finkapena (denboran finkatuta daude), laburtasuna (hizkuntzaren ekonomia-aren printzipioa), egonkortasuna (egiturari dagokionez irauten dute) eta aldaezintasuna. Horren ondorioz, pieza baliagarriak dira, laburtasuna, zehaztasuna, argitasuna, unibokotasuna eta unibertsaltasuna lortzeko (lexiko espezializatuaren ezaugarriak); nolabaiteko ospea eta aginpi-dea gehitzen dute, latinaren bidez giza jarduerarik garrantzitsuena, zuzenbidea, egin delako. Zuzenbideko profesionalentzat ezagunak diren (edo ezagutu beharko lituzketen) kontzeptuak izendatzen dituzte eta hitzez hitzeko itzulpen baten bidez adieraz daitezke, adibidez *animus necandi* (1991-6-27ko epaia, 1991/4828 EJ, Zigor arloa) eta *nisi tota lege perspecta* (124/1987 KAE, 4. OJ), edo glosen eta definizio-testu konplexuagoen bidez.

⁹ DOMINGO, R. eta RODRÍGUEZ-ANTOLÍN, B.: *Reglas jurídicas y aforismos (con jurisprudencia actualizada y remisiones a la legislación vigente)*, Aranzadi, Nafarroa, 2000, 15. or.

Erromatar termino juridikoak beste hizkuntza batera ekartzean baliokidetasun, definizio lexikografiko edo itzulpen zehatzak eraikitzea zaila da, «horietako asko itzulezinak baitira edo, gutxienez, itzulita ñabardura teknikoak galduko bailituzkete»¹⁰. Hori dela eta, glosa edo azalpen desberdinak dokumentatuta daude, lan lexikografikoetako definizioak eta esanahiak alderatuta egiaztatu daitekeenez. Horrez gain, testuinguruen arabera ñabardura asko daude. Halaber, konplexutasuna hurrengo hauen eraginez gertatzen da: (a) latinez dagoen polisemia; (b) esangura-neologia, hau da, unitate jakin batek «esangura berriak» garatzea zuzenbide garaikidean (*probatio diabolica*), eta (c) unitate bat «esangura» batekin baino gehiagorekin erabiltzeko aukera egotea (*necessitas defensionis*).

Unitate didaktiko batek izan ditzakeen askotariko «esanguren» kontua nabarmena da, besteak beste, *imperium* hitzaren kasuan (1988-6-10eko epaia, 1988/4815 EJ, arlo zibilekoa, eta 1992-6-4ko epaia, 1992/4872 EJ, administrazioarekiko auzien arloa) eta *iter* hitzaren kasuan (1992-6-15eko epaia, 1992/4804 EJ, administrazioarekiko auzien arloa eta 1988-6-10eko epaia, 1988/4813 EJ, arlo zibilekoa). Esangura hori aldatu egin daiteke, jurisdikzio zibilari edo administrazioarekiko auzien jurisdikzioari lotuta erabiltzen den kontuan hartuta. Lotura lexiko horrek, hau da, forma batek eduki desberdinei aipamen egitea AGko magistratuek nabarmentzen dute, *necessitas defensionis* lokuzioa azaltzerakoan (1992-6-10eko epaia, 1992/4897 EJ, zigor arloa).

Latinezko hitz eta lokuzio batzuek lexiko orokorra osatzen dute edo lanbide-jarduera zehatza duten sektoreetan oso hedatuta daude, eta, horregatik, kasuan kasuko artikulua lexikografikoaren buru izaten dira lema moduan. Beste unitate batzuk esparru juridikora murriztuta daude; hori dela eta, ez dira agertzen hiztegi orokorretan, hiztegi berezietan edo teknikoetan baino. Gaztelaniako (*DEA*, *DRAE*, *DUE*) eta portugalerako (*DHLP*) hiztegi orokorretan unitate hauek modu desber-

¹⁰ GUTIÉRREZ-ALVIZ eta ARMARIO, F.: *Diccionario de Derecho Romano*, Reus, Madrid, 1995, 4. arg., VI. or.

dinean hautatu eta azaltzen dituzte, eta unitateok idatziz emateko irizpideak ere askotarikoak izaten dira: Espainiako Errege Akademiak latinezko unitateak gaztelaniaren ahoskeraren arabera ematea onartzen du, eta latinezko lemetako silaba tonikoa «gaztelaniazko tiletaren erabile-ra-arauen bidez» bereizten du¹¹; *DEA*k latinezko zenbait kontsonanteren kasuan latinezko ohiko ahoskera onartzen du (*iuris et de iure*), eta parentesi artean «jatorrizko hizkuntza» eta espainiarren artean ohikoa den ahoskera edo ahoskerak adierazten ditu¹². *DHLPk* latineko milaka unitate biltzen ditu, eta horietako asko ez dira gaztelaniako hiztegieta agertzen, hala nola *citra petita* (1988-6-9ko epaia, 1988/4812 EJ, arlo zibila), *ultra petita* (1988-6-9ko epaia, 1988/4812 EJ, arlo zibila), *uti possidetis* (1998-11-16ko epaia, AC 1998/8468, Cáceresgo Probintzia Auzitegia, magistratu hizlaria: Pedro Vicente Cano Maillo Rey), etab. Hiztegi horrek latinezko jatorrizko formak errespetatzen ditu, hala nola *iuris et de jure* (1992-6-3ko epaia, 1992/4823 EJ, administrazioarekiko auzien arloa).

Latinezko arauak eta aforismoak 700¹³ edo askoz gehiago izan daitezke (1000 unitate inguru, adjektibo eta adberbio eginkizuna duten hitzak eta lokuzioak zenbatzen badira). Auzitegi Gorenak eta Konstituzio Auzitegiak emandako epaietan 350 unitate dokumentatuta daude¹⁴. Kontuan hartzen diren irizpideak gorabehera, ez dago zalantzarik XX. mendearen azken hiru hamarkadetan zientzia juridikoetan erabiltzen diren unitate lexiko eta gramatikal horien katalogoa parametro heterogeneoen arabera izango dela: lege-testuak edo jurisprudentzia-testuak diren; ebazpen judizialaren mota (*probidentzia*, *autoa* edo *epaia*); zati hori «Aurrekarien», «Oinarri Juridikoen» (OJ), «Boto partikularren» edo «Egitezko aurrekarien» eta «Zuzenbideko oinarrien»

¹¹ DRAE: in *ibidem*, XXXVIII. or.

¹² SECO, M.; ANDRÉS, O. eta RAMOS, G.: *Diccionario del español actual (DEA)*, Aguilar, Madril, 1999, 2. lib., XVIII. or.

¹³ DOMINGO, R. eta RODRÍGUEZ-ANTOLÍN, B.: in *ibidem*, 17-138. or.

¹⁴ HENRÍQUEZ SALIDO, M.^a do Carmo eta DE NO ALONSO-MISOL, E.: *Historia del léxico jurídico*, Thomson Reuters Aranzadi, Zizur, 2010.

atalekoa den; magistratu hizlaria nor den; zein kasu zehatz epaitzen ari den; jurisdikzio organoa edo ebazpena zein alditan ematen den. *Usus fori* delakoan (1992-5-30eko epaia, 1992/4831 EJ, arlo zibila), aztertutako aldian, nahiko ohikoak dira, eta lokuzio batzuk KAKo zenbait epairen berariazko gaiak izan dira, hala nola, *habeas corpus* (106/1992 KAE, 1. OJ) eta *reformatio in peius* (43/1988 KAE, 1. OJ), *Constitución y Tribunal Constitucional*¹⁵ lanean kontsultatu daitekeen moduan.

2. Justizia Auzitegiak eta latinezko esamoldeak

Lan honen *corpusa* osatzeko, Espainiako Konstituzio Auzitegiak 1987tik 1994ra eta Auzitegi Gorenak 1987tik 1992ra emandako ebazpenak ausaz hautatu dira, ahal den neurrian, aurretik egindako lanetan aztertuta ditugun formak ez errepikatzeko.

Konstituzio Auzitegi (KA) eta Auzitegi Goreneko (AG) ebazpenetan tipografiaren bidez nabarmentzen dira, eta, normalean, lokuzioaren ondoren hitzez hitzeko itzulpena edo azalpena ematen da, Konstituzioko printzipioa baita epaiak erraz ulertzeko modukoak izatea; adibidez, *actio communi dividendu* (1988-6-11ko epaia, 1988/4889 EJ, administrazioarekiko auzien arloa) eta *restitutio in pristinum* (1993-6-4ko epaia, 1993/4816 EJ, zigor arloa).

2.1. Konstituzio Auzitegia

Esan berri dugu latinismo baten agerpen maiztasuna aldagai askoren araberakoa dela. Horietako bat magistratua da zuzenean. Gertaera hori epaietan argi ikusten dugu, magistratua Rafael de Mendizábal Allende izan denean. Hauek dira adibide batzuk: *onus probandi*

¹⁵ LINDE PANIAGUA, E.: *Constitución y Tribunal Constitucional*, Thomson-Civitas Aranzadi, Zizur, 2005, 472 eta 509. or.

(120/1994 KAE, 2. OJ), *stricto sensu* (120/1994 KAE, 2. OJ), *mutatis mutandis* (120/1994 KAE, 2. OJ), *ad quem* (120/1994 KAE, 2. OJ), *lex ex post facto* (120/1994 KAE, 3. OJ), *probatio diabolica* (120/1994 KAE, 2. OJ) eta *novum iudicium* (120/1994 KAE, 2. OJ).

Beste aldagai bat latinismoa «Aurrekarietan», «Oinarri Juridikoetan» (OJ) edo «Boto partikularretan» egotea zen. Nabarmena dirudi latinismo gehien «Oinarri Juridikoetan» egotea, interes prozesal handiagoa baitute, baina baliteke «Aurrekarietan» agertutako unitateak «Oinarri Juridikoetan» berriro agertzea, hala nola *inter vivos*, *mortis causa* (121/1992 KAE, Aurrekariak eta 121/1992 KAE, 2. OJ).

«Aurrekarietan» izen-lokuzioak agertzen dira, adibidez *contradictio in terminis* (114/1990 KAE, Aurrekariak), *fictio legis* (118/1992 KAE, Aurrekariak), *opinio iuris* (119/1990 KAE, Aurrekariak), *periculum in mora* (120/1990 KAE, Aurrekariak), *ratio legis* (120/1993 KAE, Aurrekariak); adberbio lokuzioak (*ad cautelam* 115/1990 KAE, Aurrekariak), *a posteriori* (115/1987 KAE, Aurrekariak), *ex novo* (126/1987 KAE, Aurrekariak), *ex post facto* (126/1987 KAE, Aurrekariak), *extra petitum* (112/1994 KAE, Aurrekariak), *in peius* (126/1987 KAE, Aurrekariak), *in malam partem* (118/1992 KAE, Aurrekariak), *per relationem* (120/1990 KAE, Aurrekariak), *ultra causam* (119/1990 KAE, Aurrekariak) eta aditzik gabeko esaldi nominalak, esaterako *nullum crimen sine lege* (138/1987 KAE, Aurrekariak).

«Boto partikularren» atalean, hitz bakarreko unitateak aurkituko ditugu, adibidez *circumventio* (121/1992 KAE, Boto partikularra, magistratua: Carlos de la Vega Benayas), *petitum* (121/1992 KAE, Boto partikularra, magistratua: José Gabaldón López), *ratio* (119/1993 KAE, Boto partikularra, magistratua: Carles Viver Pi-Sunyer); izen lokuzioak, esaterako *animus criticandi* (121/1989 KAE, Boto partikularra, magistratua: Eugenio Díaz Eimil), *voluntas legis* (116/1994 KAE, Boto partikularra, magistratua: Álvaro Rodríguez Bereijo), eta, amaitzeko, adberbio lokuzioak, barbarako *contra legem* (121/1992 KAE, boto partikularra, magistratua: Carlos de la Vega Benayas), *ex novo* (DEA), *expressis verbis* (116/1994 KAE, Boto partikularra, magistra-

tua: Álvaro Rodríguez Bereijo) eta *pro futuro* (119/1993 KAE, Boto partikularra, magistratua: Carles Viver Pi-Sunyer).

1. Esan dugun moduan, latinismoak hitz bakarreko edo hitz askoko unitateak izan daitezke. Hitz bakarreko unitate gehienak izenak dira. Testuan determinatzailea izaten dute lagun, eta horrek adierazten du «talde nominalak izendapen adiera bakarra duela»¹⁶, besteak beste, *minimura* (DRAE), (120/1990 KAE, 5. OJ), *quantuma* (DEA), (20/1992 KAE, 1. OJ) eta *statusa* (DEA), (117/1987 KAE, 2. OJ).

Izen lokuzioek askotariko eskemak dituzte. Honela labur daitezke:

- a) Izena, genitibo kasuan dagoen izenak aldatuta. Adibidez: *favor actionis* (120/1993 KAE, 5. OJ), *favor libertatis* (115/1987 KAE, 1. OJ), *ius litigatoris* (115/1990 KAE, 2. OJ), *nomen iuris* (219/1991 KAE, 1. OJ), *pactum associationis* (113/1994 KAE, 11. OJ), *tertium comparationis* (116/1987 KAE, 8. OJ), *vindicatio potestatis* (203/1993 KAE, 2. OJ).
- b) Izena, termino juridikoa eta eraikuntzaren erdigunea, genitibo kasuan dagoen gerundioak aldatuta, hala nola *causa petendi* (122/1994 KAE, 2. OJ), *ius puniendi* (120/1994 KAE, 2. OJ) eta *onus probandi* (114/1989 KAE, 7. OJ).
- c) Izena kasu nominatiboan, termino juridikoa eta eraikuntzaren erdigunea, adjektiboak edo orainaldiko partizipioak aldatuta, hala nola *ius singulare* (121/1992 KAE, 2. OJ), *lex certa* (33/1987 KAE, 4. OJ), *lex praevia* (133/1987 KAE, 4. OJ), *lex scripta* (133/1987 KAE, 4. OJ), *litis pendentia* (118/1993 KAE, 2. OJ), edo izena kasu nominatiboan, termino juridikoa eta eraikuntzaren erdigunea, preposizio baten bidez hasitako taldeak aldatuta, adibidez *ius in officium* (15/1992 KAE, 3. OJ).

2. Adberbio lokuzioen barruan sartzen dira hitzak, barbarako *ibidem* (114/1989 KAE, 4. OJ), eta askotariko talde sintaktikoak, *a, con-*

¹⁶ REAL ACADEMIA ESPAÑOLA: *Nueva gramática de la lengua española*, Espasa, Madrid, I. lib. (Morfologia eta Sintaxia), 1024. or.

tra, ex, extra, in, per eta *pro* preposizioen bidez hasita, eta atzetik izena edo adjektiboa kasu ablatiboan edo akusatiboan dutela: *a limine* (120/1990 KAE, 4. OJ), *a priori* (116/1987 KAE, 1. OJ), *contra constitutionem* (115/1992 KAE, 3. OJ), *ex constitutione* (216/1991 KAE, 5. OJ), *ex lege* (155/1996 KAE, 4. OJ), *ex nihilo* (120/1994 KAE, 2. OJ), *extra petita* (311/1994 KAE, 2. OJ), *extra petitum* (112/1994 KAE, 3. OJ), *in extenso* (113/1994 KAE, 12. OJ), *in fine* (114/1994 KAE, 3. OJ), *in integrum* (189/1991 KAE, 3. OJ), *in radice* (116/1989 KAE, 3. OJ), *in situ* (120/1994 KAE, 2. OJ), *in toto* (118/1987 KAE, 3. OJ), *per saltum* (120/1993 KAE, 2. OJ), eta *pro actione* (212/1993 KAE, 1. OJ). Adberbio lokuzioak, besteak beste, *contra constitutionem* eta *ex constitutione*, 1985etik aurrera dokumentatzen dira.

Adberbio lokuzio batzuek *sine* preposizioa daukate, ablatibo kasuan koordinatutako eraikuntza baten aurretik, adibidez *sine strepitu et iudicio* (104/1995 KAE, 2. OJ), edo adjektiboa eta izena kasu ablatiboan, esaterako *ceteris paribus* (119/1989 KAE, 4. OJ), *expressis verbis* (113/1994 KAE, 14. OJ), *lato sensu* (112/1987 KAE, 4. OJ), *prima facie* (119/1990 KAE, 5. OJ), *stricto sensu* (122/1993 KAE, 3. OJ), edo izen bat ablatibo kasuan, genitibo kasuan dagoen izen batek aldatuta, esaterako *ope legis* (62/1990 KAE, 2. OJ) eta *ratione territorii* (114/1994 KAE, 1. OJ).

3. Perpaus lokuzioak, aurreratu dugunez, «subjektua» eta «predikatua» harremanetan jartzen dituzten segmentuak izan daitezke, hala nola *ius ut procedatur* (148/1987 KAE, 2. OJ), *non bis in idem* (160/1987 KAE, 6. OJ) eta *favoralia sunt amplianda, odiosa sunt restringenda* (115/1990 KAE, 2. OJ); edo aditzik gabeko adberbio esaldien egitura izan dezakete, besteak beste, *in dubio pro libertate* (117/1987 KAE, 2. OJ). Beste adibide batzuetan *agere* aditza agertzen da, «aldi errepublikarreko erromatar legelariak egindako jarduera bat adieraziz; auzi batean interesdunei akzio zehatza hautatzeko eta akzioa formula ereduaren eta aniztasunaren arabera egokitzeko emandako laguntzari

(...) aipamen egiten dio»¹⁷; beste infinitibo baten laguntzaz ere agertzen da, adibidez, *agere licere* (120/1990 KAE, 10. OJ). Partizipioko eraikuntza absolutuak ere badaude, adibidez, *inaudita parte* (118/1993 KAE, 4. OJ).

4. Adjektibo lokuzioen artean, maiztasun indize handia dela-eta, hurrengoak aipatu behar dira: *ad quem* (115/1990 KAE, 3. OJ) eta *a quo* (116/1987 KAE, 1. OJ); izen batzuekin konbinatuta, hala nola *Auzitegi, Sala, epaile* eta *dies: dies ad quem, dies a quo* (120/1987 KAE, 6. OJ). Beste adjektibo lokuzio batzuk dira *ad hoc* (134/1987 KAE, 7. OJ), *erga omnes* (119/1990 KAE, 5. OJ), *inter vivos* (121/1992 KAE, 3. OJ), *iuris tantum* (78/1988 KAE, 6. OJ) eta *mortis causa* (121/1992 KAE, 3. OJ).

2.2. Auzitegi Gorena

Auzitegi Goreneko ebazpenetan dokumentatutako latinismo kopurua Konstituzio Auzitegiko epaietan erregistratutako latinismo kopurua baino handiagoa da. Horren azalpena izan daiteke Auzitegi Goreneko ebazpen gehiago aztertu izana. Latinismo horiek aztertzeke, aurreko atalean erabilitako metodo berari jarraituko diogu, baina atal horretan adierazitako azalpenak alde batera utziko ditugu.

1. Hitz bakarreko unitate gehienak izenak dira eta zuzenbideko kontzeptu juridiko nuklearrak izendatzen dituzte; guztiek determinatzailea izaten dute aurretik. Adibide batzuk, hala nola *desideratum* (1992-6-10eko E, 1992/4904 EJ, zigor arloa) eta *plus* (1992-6-10eko E, 1992/4904 EJ, zigor arloa) hizkera arruntean askotan erabiltzen diren hitzak dira, baina arau orokorrari jarraituz, hitz juridikoak dira: *auctoritas* (1992-6-4ko E, 1992/4872 EJ, administrazioarekiko auzien arloa), *cognitio* (1991-6-10eko E, 1991/4871 EJ, administrazioarekiko

¹⁷ GUTIÉRREZ-ALVIZ eta ARMARIO, F.: in *ibidem*, 58. or.

auzien arloa), *factum* (1991-6-24ko E, 1991/4801 EJ, zigor arloa), *illatio* (1987-6-16ko E, 1987/4818 EJ, zigor arloa), *iudicium* (1992-6-8ko E, 1992/4866 EJ, zigor arloa), *novum* (1991-6-6ko E, 1991/4886 EJ, administrazioarekiko auzien arloa), *onus* (1993-6-5eko E, 1993/4844 EJ, zigor arloa), *posterius* (1991-6-25eko E, 1991/4804 EJ, zigor arloa), *tradens* (1989-6-30eko E, 1989/4800 EJ, arlo zibila), eta *usu-capio* (1988-6-7ko epaia, 1988/4824 EJ, arlo zibila). Izenez gain, gerundio bat genitibo kasuan aurki dezakegu, substantibo bat aldatuz, adibidez *impotentia coeundi* (1991-6-28ko E, 1991/4841 EJ, zigor arloa); adjektiboak, adibidez *ficta* (1993-6-4ko E, 1993/4815 EJ, zigor arloa), eta *saliens* (4-6-1993-6-4ko E, 1993/4816 EJ, zigor arloa), eta *quasi* adberbioa (1989-6-26ko Autoa, 1989/4888 EJ, administrazioarekiko auzien arloa).

2. Lokuzio nominaletan gehien agertzen diren eskemak honakoak dira:

- a) Izena, genitiboan dagoen izenak aldatuta: *curriculum vitae* (1992-6-10eko E, 1992/4798 EJ, administrazioarekiko auzien arloa), *error facti* (1991-6-28ko E, 1991/4841 EJ, zigor arloa), *factum principis* (1987-6-10eko E, 1987/4865 EJ, administrazioarekiko auzien arloa), *fictio legis* (1989-6-21eko E, 1989/4827 EJ, lan arloa), *iter criminis* (1991-6-27ko E, 1991/4828 EJ, zigor arloa), *ius litigatoris* (1993-1-11ko Autoa, 1993/4795 EJ, administrazioarekiko auzien arloa), *mutatio veritatis* (1991-6-27ko E, 1991/4832 EJ, zigor arloa), *pactum fiduciae* (1988-6-9ko E, 1988/4809 EJ, arlo zibila), *pactum sceleris* (1991-6-26ko E, 1991/4815 EJ, zigor arloa), *quaestio facti* (1988-6-13ko E, 1988/4872 EJ, arlo zibila), *ratio legis* (1989-6-23ko E, 1989/4877 EJ, administrazioarekiko auzien arloa), *societas sceleris* (1991-6-10eko E, 1992/4896 EJ, zigor arloa). Izenordain galdetzaile bat genero neutroan aurkitu dugu, substantibo moduan erabilita, genitibo kasuan dagoen izen batek aldatuta, *quid iuris* (1992-6-10eko E, 1992/4904 EJ, zigor arloa).

- b) Izena, eraikuntzaren erdigunea den termino juridikoa (*animus, causa, ius, potestas*), genitibo kasuan dagoen gerundioak aldatuta, adibidez: *animus adiuvandi* (1991-6-28ko E, 1991/4838 EJ, zigor arloa), *animus laedendi* (1993-6-10eko E, 1993/4868 EJ, zigor arloa), *animus lucrandi* (1991-6-28ko E, 1991/4838 EJ, zigor arloa), *animus necandi* (1993-6-10eko E, 1993/4868 EJ, zigor arloa), *animus nocendi* (1992-6-8ko E, 1992/4867 EJ, zigor arloa), *animus rem sibi habendi* (1987-6-13ko E, 1987/4802 EJ, zigor arloa), *causa expropiandi* (1993-6-5eko E, 1993/4872 EJ, administrazioarekiko auzien arloa), *ius aedificandi* (1993-6-16ko E, 1993/4884 EJ, administrazioarekiko auzien arloa), *ius puniendi* (1991-6-24ko E, 1991/4795 EJ, Zigor arloa), *ius variandi* (1989-6-20ko E, 1989/4867 EJ, administrazioarekiko auzien arloa), *potestas variandi* (1992-6-9ko E, 1992/4794 EJ, administrazioarekiko auzien arloa).
- c) Izena kasu nominatiboan, kasu nominatiboan dagoen eta izenaren ostean edo aurrean egon daitekeen adjektiboak edo partizipioak aldatuta, edo adberbioak aldatuta, hala nola *bona fides* (1988-6-7ko E, 1988/4824 EJ, arlo zibila), *dolus malus* (1987-6-13ko E, 1987/4799 EJ, zigor arloa), *eadem res, eadem persona* (1991-6-6ko E, 1991/4886 EJ, administrazioarekiko auzien arloa), *eadem sed aliter* (1991-6-24ko E, 1991/4799 EJ, zigor arloa), *facta concludentia* (1988-6-13ko E, 1988/4892 EJ, administrazioarekiko auzien arloa), *ficta confessio* (1987-6-27ko E, 1987/4825 EJ, arlo zibila), *ius singulare* (1993-6-5eko E, RJ 1993/4872, administrazioarekiko auzien arloa); *interpretatio abrogans* (1991-6-27ko E, 1991/4827 EJ, zigor arloa), *punctum pruriens* (1988-6-7ko E, 1988/4822 RJ, arlo zibila) eta *ultima ratio* (1987-6-13ko E, 1987/4799 EJ, zigor arloa).
- d) Askotariko egiturak dituzten talde nominalak dokumentatu ditugu, eta horietan izen bat kasu nominatiboan agertzen da eta alboan beste multzo batzuk daude, *in* preposizioarekin hasita-koak kasu ablatiboan edo akusatiboan eta *ad* preposizioarekin

hasitakoak kasu akusatiboan, adibidez *contradictio in terminis* (1991-6-26ko E, 1991/4797 EJ, zigor arloa eta 1988-6-14ko E, 1988/4877 EJ, arlo zibila), *error in personam* (1993-6-4ko E, 1993/4816 EJ, zigor arloa), *legitimatío ad causam* (1988-6-9ko E, 1988/4811 EJ, arlo zibila); beste batzuetan beste multzo nominal bat izaten dute ondoan, adibidez, *exceptio plurium concubentium* (1987-6-27ko E, 1987/4825 EJ, arlo zibila), *usuca-pio libertatis contra tabulas*, (1988-6-7ko E, 1988/4824 EJ, arlo zibila); edo adberbio bat, esaterako *obiter dicta* (1989-6-26ko E, 1989/4844 EJ, lan arloa); *obiter dictum* (1988-6-8ko E, 1988/4826 EJ, arlo zibila). Adibide batean, kasu ablatiboan dagoen multzo bat, *statu quo* (1988-6-13ko E, 1988/4895 EJ, administrazioarekiko auzien arloa), gaur egungo gaztelaniak izen bihurtu du. Baliteke multzoko lehenengo izena gaztelaniara itzulita agertzea edo latinez egotea.

3. Adberbio lokuzioen kopurua oso handia da; *nominatim* adberbioa baino ez dugu aurkitu (1988-5-21eko E, 1988/4828 EJ, Administrazioarekiko auzien arloa eta 1991-6-26ko E, 1991/4819 EJ, zigor arloa), dagoeneko gaztelanian txertatuta dagoen hitza.

Adberbio lokuzio ugari daudenez, horiek deskribatu eta aztertzeko, preposizioaren eta kasuaren (ablatiboa edo akusatiboa) arabera edo eraikuntza motaren arabera taldekatuko ditugu. *a*, *ab*, *cum*, *ex*, *in*, *pro* preposizioak kasu ablatiboarekin erabiltzen dira eta denborari, lekuari edo moduari aipamen egiten diote: *a radice* (1987-6-16ko E, 1987/4818 EJ, zigor arloa), *a sensu contrario* (1989-6-29ko E, 1989/4797 EJ, arlo zibila), *ab initio* (1987-6-10eko E, 1987/4860 EJ, administrazioarekiko auzien arloa), *ab intestato* (1989-6-19ko E, 1989/4816 EJ, lan arloa); konpainia esangura dute, hala nola *cum creditore*, *cum amicu* (1988-6-9ko E, 1988/4809 EJ, arlo zibila); lekuzko esangurak, hala nola *ex abundantia* (1987-6-29ko E, 1987/4827 EJ, arlo zibila), *ex lege* (1987-6-10eko E, 1987/4863 EJ, administrazioarekiko auzien arloa), *ex tunc* (1988-6-10eko E, 1988/4864 EJ, adminis-

trazioarekiko auzien arloa), *in facie iudicis* (1992-6-5eko E, 1992/4857 EJ, zigor arloa) eta *in limine litis* (1991-6-24ko E, 1991/4799 EJ, zigor arloa); eta esangura modalak, hala nola *pro forma* (1992-6-9ko E, 1992/4892 EJ, zigor arloa) eta *pro tutela* (1992-12-12ko E, 1992/4878 EJ, administrazioarekiko auzien arloa).

Halaber, *ad* preposizioa kasu akusatiboarekin erabiltzen da, eta lekuari, denborari edo askotariko ñabardura zirkunstantzialei aipamen egiten die. Horren adibide dira *ad causam* (1988-6-14ko E, 1988/4877 EJ, arlo zibila), *ad futurum* (1991-6-6ko E, 1991/4886 EJ, administrazioarekiko auzien arloa) eta *ad solemnitatem* (1991-6-5eko E, 1991/4885 EJ, administrazioarekiko auzien arloa).

Beste lokuzio batzuk kasu ablatiboan dauden bi hitzekin osatuta daude, adibidez, *ipsa* (1987-6-16ko E, 1987/4818 EJ, zigor arloa) eta *eo ipso* (1993-6-5eko E, 1993/4842 EJ, zigor arloa) izenordain erakusleak; edo izen eta adjektibo batekin, esaterako *motu proprio* (1987-6-17ko E, 1987/4892 EJ, administrazioarekiko auzien arloa); edo adjektibo eta izen batekin, hala nola *pari passu* (1991-6-24ko E, 1991/4799 EJ, zigor arloa); edo kasu ablatiboan dagoen izenarekin, genitiboan dagoen izenak aldatuta, esaterako *ope legis* (1991-6-7ko E, 1991/4887 EJ, administrazioarekiko auzien arloa).

Amaitzeko, unitate jakin batzuetan, *in* preposizioa eta gerundio bat kasu ablatiboan agertzen dira, esaterako *in eligendo* (1987-6-29ko E, 1987/4828 EJ, arlo zibila), *in iudicando* (1987-6-13ko E, 1987/4800 EJ, zigor arloa) eta *in procedendo* (1991-6-8ko E, 1992/4866 EJ, zigor arloa eta 1993-6-6ko E, 1993/4846 EJ, zigor arloa). Esangura zirkunstantziala dute eta *erru*, *errakuntza*, *zabarkeria* eta *akats* izenen modifikatzaile nominal moduan funtzionatzen dute.

4. Perpaus lokuzioen multzoan, esan dugunez, batzuk segmentuak dira eta «subjektua» eta «predikatua» lotzen dituzte, hala nola *lega ferenda* (1989-6-26ko E, 1989/4848 EJ, lan arloa), *lege data* (1993-6-4ko E, 1993/4814 EJ, zigor arloa), *qui suo iure utitur* (1987-6-26ko E, 1987/4824 EJ, arlo zibila), *rebus sic stantibus* (1988-6-4ko E, 1988/4842 EJ, administrazioarekiko auzien arloa), *res ipsa loquitur* (1988-6

-10eko E, 1988/4868 EJ, arlo zibila) eta *solve et repete* (1991-6-20ko E, 1991/4891 EJ, administrazioarekiko auzien arloa).

Beste unitate batzuek esaldi nominalen egitura dute, besteak beste, *dura lex, sed lex* (1992-6-3ko E, 1992/4823 EJ, administrazioarekiko auzien arloa), *ne bis idem* (1991-6-27ko E, 1991/4827 EJ, zigor arloa), *nullum crimen, nulla poena sine lege* (1991-12-5eko E, 1992/4877 EJ, administrazioarekiko auzien arloa), *testis unus, testis nullus* (1992-6-5eko E, 1992/4857 EJ, zigor arloa) eta aditzik gabeko adberbio esaldien egitura, esaterako *in dubio pro operario* (1989-6-27ko E, 1989/4851 EJ, lan arloa) eta *in dubio pro reo* (1991-6-24ko E, 1991/4802 EJ, zigor arloa).

5. Adjektibo lokuzioen artean, aipatutakoez gain (*ad quem, a quo, erga omnes, iuris tantum*), beste hauek ere azpimarratu behar dira: *inter privatos* (1989-6-20ko E, 1989/4866 EJ, administrazioarekiko auzien arloa), *sub iudice* (1991-6-26ko E, 1991/4818 EJ, zigor arloa) eta *sui generis* (1988-6-4ko E, 1988/4845 EJ, administrazioarekiko auzien arloa).

3. Laburbilduz

Zientzia juridikoen berbategia ez da *ex nihilo* sortu. Azpimultzo garrantzitsu bat latinetik hartuta dago, hain zuzen ere, hizkuntza hori zientziaren hizkera baitzen XVIII. mendearen lehenengo zati arte —Piquer-ek, Europako XVIII. mendeko mediku ospetsuenetako batek, hurrengo zioen *Dictamen* (1768) lanean medikuntzako ikasketen eraldaketari buruz: «Medikuntzako ikasleek latina modu egokian ikasi behar dute (...) ez dauka zentzurik jendearen osasuna latinezko paragrafo bati aurre egin ezin dion pertsona baten esku uzteak»¹⁸—. Hala ere, 1760tik aurrera, gutxi gorabehera, latinaren aurkako mugimendua

¹⁸ LÁZARO CARRETER, F.: *Las ideas lingüísticas en España durante el siglo XVIII*, Crítica, Bartzelona, 1985, 167. or.

sortu zen. Mugimendu horrek gutxi batzuk izan zituen aurka, tartean aita Lorenzo Hervás. Azken horrek, Jesusen Konpainiaren sortzaileen tradizioari leial izateaz gain, latina babesten zuen, «jakitun guztientzako hizkuntza komuna izateko»¹⁹.

Latineko ahots eta lokuzioek erakargarritasun berezia dute eragile juridikoentzat, hizkuntza klasiko horrek duen garrantzia dela bide. Izan ere, latinak giza jarduerarik garrantzitsuenak arautzen dituen zuzenbidea egiteko balio izan zuen, eta erromatar legelarien zientzia kodetze modernoan sasoi arte bizirik iraun zuen. Lokuzio horiek inguruabarrak eta kualitateak adieraz ditzakete, edo kontzeptuei, erre-gela juridikoei eta zuzenbideko printzipio orokorrei aipamen egin ahal diete. Batez ere *Digesto* laneko testuetatik aterata egoten dira, balio betiereko, unibertsal eta aldaezinarekin, gehienak *bidezko zuzentasunean* oinarrituta egoten baitira. Giltzari oso baliagarriak dira zehaztasuna, laburtasuna («Moralaren eta Justiziaren ideal handiak» laburtzen dituzte²⁰) eta unibokotasuna lortzeko, *zuzenbidearen arabera pentsatzeko* eta *zuzenbidearen arabera arrazoitzeko*.

Latineko termino juridikoak itzultzea oso zaila izaten da, «gehienak itzulezinak dira», eta itzultzen direnean, berezitasunak eta ñabardura teknikoak galtzen dituzte. Horien ohiko esangura eta askotariko adierak argitzea eginkizun konplexua eta diziplina askotakoa da, sortu zirenetik denbora asko igaro delako eta hizkuntza bateko hitzek esanahi aldaketak izaten dituztelako.

Azken hamarkadetan, Batxilergoko ikasketetan eta unibertsitateko ikasketetan latinaren irakaskuntza gutxitu edo desagertu denez, eta Giza Zientziak gero eta gutxiago lantzen direnez, hitz, multzo eta esaldi horiek justizia auzitegietao ebazpenetan ez erabiltzeko nola-baiteko joera ikusten da; izan ere, badirudi ez dela kontuan hartzen ebazpen judizial bat prestatzean eta idaztean diskurtso zientifikoaren

¹⁹ LÁZARO CARRETER, F.: in *ibidem*, 167-170. or.

²⁰ MARTÍN DEL BURGO ETA MARCHÁN, A.: *El lenguaje del Derecho*, Bosch, Bartzelona, 2000, 224.or.

arauak bete behar direla, hori sormen egintza izan behar dela, ez diola testuaren gaineko erantzukizunaren arazoari ihes egin behar, ez «hiztez», ez «asmoz». Komeni da gogoraraztea testu mota honek berezko tradizioak dituela, diskurtso-tradizio luze baten menpe dagoela, eta erretorika eta hermeneutika juridikoaren eredu bati erantzuten diola. Hori dela eta, egileek testuen izaerak ezarritako deontologia onartu behar dute, zuzenbidearen argudiozko eta interpretaziozko jarduerari lotuta dagoena, eta ezin dituzte unitate lexikal eta gramatikal horiek alde batera utzi.

4. Bibliografia

- Dicionário Houaiss da Língua Portuguesa*, de A. Houaiss, Editora Objetiva, Rio de Janeiro, 2001.
- Diccionario de la Lengua Española*, Espasa-Calpe, Madril, 1. lib.
- DOMINGO, R. eta RODRÍGUEZ-ANTOLÍN, B.: *Reglas jurídicas y aforismos (con jurisprudencia actualizada y remisiones a la legislación vigente)*, Aranzadi, Zizur, 2000.
- GARCÍA DE ENTERRÍA, E.: *La lengua de los derechos. La formación del derecho público europeo tras la revolución francesa*, Alianza, Madril, 2001.
- GUTIÉRREZ-ALVIZ eta ARMARIO, F.: *Diccionario de Derecho Romano*, Reus, Madril, 1995, 4. arg.
- HENRÍQUEZ SALIDO, M.^a do Carmo eta DE NO ALONSO-MISOL, E.: *Pautas para el análisis del léxico de la jurisprudencia del Tribunal Supremo*. Thomson-Civitas, Zizur, 2005.
- HENRÍQUEZ SALIDO, M.^a do Carmo eta DE NO ALONSO-MISOL, E.: *Historia del léxico jurídico*, Thomson Reuters Aranzadi, Zizur, 2010.
- LÁZARO CARRETER, F.: *Las ideas lingüísticas en España durante el siglo XVIII*, Crítica, Bartzelona, 1985.
- LINDE PANIAGUA, E.: *Constitución y Tribunal Constitucional*, Thomson-Civitas Aranzadi, Zizur, 2005.
- MARTÍN DEL BURGO Y MARCHÁN, A.: *El lenguaje del Derecho*, Bosch, Bartzelona, 2000.

MASSON, A. eta DUPAC-PORTIER, P.: «Usages et réflectivité du latin à la Cour de justice des Communautés européennes», *Revue trimestrelle de droit européen*, 43. zk. (4), 2007ko urria-abendua.

MATILLA, H.: «Los cambios del lenguaje administrativo y jurídico en el mundo de hoy. Un balance comparativo de los últimos veinticinco años», *Revista de Lengua i Dret*, 51. zk.

REAL ACADEMIA ESPAÑOLA: *Nueva gramática de la lengua española*, Espasa, Madril, I. lib.

SECO, M.; ANDRÉS, O. eta RAMOS, G.: *Diccionario del español actual (DEA)*, Aguilar, Madril, 1999, 2. lib.

*Maria do Carmo Henriques Salido**

* Maria do Carmo Henriques Salido andrea gaztelaniako katedraduna da Vigoko Unibertsitatean, eta latina eta zuzenbidea bikotea ikertzen duten lan askoren egile.

Latinezko esamoldeak zuzenbiderako

Euskararen ikuspuntua

1. Latinezko esamoldeen erabilera euskarazko testuetan

1.1. *Sarrera*

Euskal gaietan latinezko esamoldeen kontuari tarte gutxi eskaini zaio, ikuspegi orokorrean zein mundu juridikoan. Salbuespenen artean, duela hogeita hamar urte baino gehiago *Hiztegia 80*¹ berbategi ezagunean agertzen ziren latinezko adierazpen orokorren zerrenda eta euskarazko itzulpena aipa daiteke, edo duela zazpi urte IVAPen estilo-liburuan² zetorren latinismoen zerrenda³.

¹ *Hiztegia 80*, Elkar, Bilbo, 1980; berdin, horren ondoregoan, *Hiztegia 2.000* izenekoan; atal horren izenburua honakoa: «Latinezko eta beste erdal esaldi batzuk»; bezaz, latinezko esamoldeez gain, ingelesez, frantsesez edo italianoz idatzitakoak ere jaso ziren, sarreratxo honen ostean: «Kultur hizkuntza guztietan latindar autore klasikoan eta testu sakratuen esaldi eta aipamenak maiz erabiltzen dira, bai halaber beste hizkuntza batzuetakoak ere. Guztiotatik aukera hau eskaintzen diogu irakurleari, probetxagarri gerta dakiokelakoan».

² ARAKAMA, J.M.; ARRIETA, A.; LOZANO, J.; ROBLES, J.M. eta URRUTIA, R.M.: *IVAPeko estilo-liburua*, IVAP-HAEE, Oñati, 2005; bertan latinezko larogeita hamaika esamolde eta euren euskarazko itzulpenak datoz, azalpen-sarrerarik gabe.

³ Aurreko bi erreferentzia horiez gain, badira beste lan interesgarri batzuk. Adibidez, esaerak euskararen ikuspuntutik aztertzen dituzten lanak kontuan hartzekoak dira,

Hala ere, gaiak interes handia du eta beste hizkuntza batzuetan asko jorratu da, esaterako gaztelaniaz, estilo-eskuliburuetan eta are gehiago hizkera juridikoa aztertzen duten lanetan⁴.

Halako lanetan landutako gaiak bi dira: batetik, mota horretako adierazpenen interesa, hau da, testuan duten eginkizuna, latinismoen balioa edo latinismoak erabiltzearen komenigarritasuna; bestetik, latinismoak idazteko modua, hau da, latinezko formen ortotipografia.

Oro har, latinismoak testuinguru akademiko eta espezializatuetan erabiltzea defendatzen da, baina herritarrei zuzendutako dokumentazioan gutxi erabiltzea gomendatzen da, testuak ulergarriak izan daitezzen.

Abiaburu horiek kontuan hartuta, hurrengo puntuetan honako gai hauek garatuko ditugu euskararen ikuspuntutik: lehenengo, latinezko esamoldeek testu juridikoetan duten erabilera erakutsiko dugu, eta, ondoren, latineko formak erabiltzeko jarraibideak erakutsiko ditugu, tipografiaren zein erabileraren ikuspuntutik.

Horretarako, latinismoak euskarazko testu juridikoetan nola erabili diren erakutsiko dugu, bi kasutan: hasteko, testu elebidunetan, Euskal Autonomia Erkidegoan argitaratutako aldizkari ofizialetan, eta jarraitzeko, euskaraz osorik idatzitako unibertsitateko lan batean. Bestalde, hurrengo puntuan, forma horiek idazteko moduari buruz esan direnak berrikusiko ditugu.

esaterako, Gotzon Garaterena (27.173 *atsotitzak, refranes, proverbes, proverbial*, Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa, Bilbo, 1998); bertan, mundu juridikotik hurbil dagoen euskarazko esapideren bat ere agertzen da. Halaber, interesgarriak dira latinetik euskarara zuzenean itzulitako lanak, batez ere, juridikoak, besteak beste, Kode Kanonikoaren itzulpena, bai aurreko kodearen itzulpena, Aita Ipolito Larrakoetxearena (*Erroma'ko Eleizaren Araudia*, Kardaberaz Bazkuna, Tolosa, 1978), zein oraingo kodearen itzulpena, Sebastian Uriarena (*Zuzenbide Kanonikoaren Kodea. Latinez eta euskaraz*, Idatz argitalpenak, Donostia, 2010).

⁴ Ikus liburuaren bukaeran datorren bibliografia.

1.2. *Latinezko esamoldeak aldizkari ofizialetan*

Atal honetan testuak euskaraz argitaratzen dituzten bi aldizkari ofizialetako adibideak jaso ditugu. Bi aldizkari ofizial —Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria eta Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, zehazki— aztertuko ditugu.

Egia esan, euskarazko testua gaztelaniazkoaren itzulpena da. Hori dela eta, euskarazko forma zein gaztelaniazko testua ematen dira. Zehatz esanda, testuak hitzez hitz jaso dira gaztelaniaz zein euskaraz, eta beraz, tipografiari dagokionez, latinismoak jatorrizko testuan daudden bezala agertzen dira (hau da, batzuetan latinismoa markatu gabe, batzuetan komatxo artean, eta beste batzuetan etzanda).

Jatorrizko testuak jaso dira, eta oin-oharrean kasuan kasuko datuak ematen dira: latinismoa hartzen duen testuaren izenburu elebiduna eta, parentesi artean, zein aldizkaritakoa den, data, aldizkari zenbakia eta orrialde zenbakia adierazita.

1.2.1. EUSKAL HERRIKO AGINTARITZAREN ALDIZKARIA (EHAA)

Esan dugunez, lehenengo eta behin, euskarazko testu juridikoetan agertzen diren latinismoak jaso ditugu. Zehatz esanda, Euskal Autonomia Erkidegoan argitaratutako aldizkari ofizialetan duten erabilera aztertu da. EHAA aztertuko dugu lehenengo. Euskararen egoera dela-eta, euskarazko testuetan latinismoak agertzen dira gaztelaniazko testuan ere agertzen badira, euskaraz gaztelaniazko jatorrizko testuaren itzulpena egiten baita. Zenbait adibide jaso ditugu, alfabetikoki ordenatuta; oin-oharrean adibide horiek nondik atera ditugun adierazi dugu.

a) *A posteriori*⁵

Ordezkoak kontratatzea, horretarako nahiko aurrekontu izendapenik ez dagoela, «a posteriori» egindako kreditu eskualdaketa egokien bidez arautu da.

Las contrataciones de sustitutos sin consignación presupuestaria suficiente en el momento del hecho, han sido regularizadas a través de las oportunas transferencias de crédito a posteriori.

b) *De facto*⁶

Adibide bi, formaren aldetik desberdin idatzita:

Bestalde, kontuan hartuta nekazaritzako elikagaien kalitate-irudia ekoizpen tradizional eta ekologikoe-kin lotuta egoteaz gain eremu geografiko batzuekin ere lotzen dela, gerta liteke eremu geografiko horiek kalitate-marka bat sortzea de facto, eta horri kalte egitea genetikoki eraldatutako laboreak ekoitziz gero.

Por otra parte, dado que la imagen de calidad de los productos agroalimentarios, además de ir asociada a producciones tradicionales y ecológicas, también se asocia a áreas geográficas, éstas pueden constituir de facto una «marca» de calidad que podría verse afectada negativamente con la producción de cultivos modificados genéticamente.

⁵ Erabakia, 1994ko otsailaren 14koa, Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren lehendakariarena, Euskal Autonomi Elkartearen 1992. urtealdiko Kontu Orokorraren Fiskalizatze Txostena argitaratu ematen duena / Resolución de 14 de febrero de 1994, del Presidente del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, por la que se hace público el Informe de Fiscalización de la Cuenta General de la Comunidad Autónoma de Euskadi del ejercicio 1992 (EHAA, 1994ko urriaren 27, osteguna, 205 zk., 12733 or).

⁶ Lehengo adibidea: 93/2009 Dekretua, apirilaren 21ekoa, genetikoki eraldatutako laboreak eta ohiko nekazaritza eta nekazaritza ekologikoa aldi berean nola landu arautzen duena / Decreto 93/2009, de 21 de abril, por el que se regula la coexistencia de los cultivos modificados genéticamente con los convencionales y ecológicos (EHAA, 2009ko maiatzaren 8a, ostirala, 85 zk., 2431 or).

Bigarren adibidea: 249/1995 Dekretua, apirilaren 25ekoa, ekonomia gaietarako Ordezko Batzordea sortu eta arautzeari buruzkoa / Decreto 249/1995, de 25 de abril, por el que se crea y regula la Comisión Delegada para Asuntos Económicos (EHAA, 1995eko maiatzaren 5a, ostirala. 84 zk., 4657 or).

Bigarren adibidea:

Ekonomia-Batzordearen egitekoak, betebeharrak eta iharduera, hala ere, bera arautzeko emandako dekretuan jarritako bideetatik barik, oso bestelakoetatik joan dira «de facto».

«De facto», sin embargo, las funciones, quehaceres y funcionamiento de la Comisión Económica han ido por derroteros bien distintos a los que la norma de su regulación marcaba.

c) *De iure*⁷

Hala, «de iure» gaurdaino iraun du zuzenketa txiki batzuk eginda, hain zuzen plangintza taldeak aipatzen zizuzten dekretu arautzaileko atalak ezabatzen eta plangintza prozesuari emandako norabide berriak ezartzen eratorritako zuzenketa.

Esta nueva funcionalidad de la Comisión Económica truncó la configuración inicial de la misma y, convertida en una Comisión no de carácter delegado ni con las finalidades totalizadoras y auxiliares de las decisiones del ejecutivo que podían predicarse de la inicial Comisión Económica, ha perdurado «de iure» hasta hoy en día con mínimas correcciones siendo éstas las devenidas de la reorientación dada al proceso planificador y de la derogación de los artículos que en su Decreto regulador aludían a los grupos Funcionales de Planificación.

⁷ 249/1995 Dekretua, apirilaren 25ekoa, ekonomia gaietarako Ordezko Batzordea sortu eta arautzeari buruzkoa / Decreto 249/1995, de 25 de abril, por el que se crea y regula la Comisión Delegada para Asuntos Económicos (EHAA, 1995eko maiatzaren 5a, ostirala. 84 zk., 4657 or).

d) *Dies a quo*⁸

Arauhauste etengabe deritzenen kasuan preskripziorako «dies a quo» delakoaren arazoari jurisprudentziaren batean zein konponbide eman izan zaion azaldu dugu zehaztaper horretan.

En él se recoge la solución dada por alguna jurisprudencia al problema del «dies a quo» de la prescripción en los casos de infracciones llamadas permanentes, esto es que consisten en un actuar o un omitir que se prolonga durante el tiempo, sin que ello conlleve la existencia de una pluralidad de infracciones.

e) *Erga omnes*⁹

Lege-harremanaren pertsona-elementuetako batetan aldaketa subjektiboa, bere benetako edukia ezertan aldatu gabe, uzketaren «erga omnes» enganako jakinaraztea bere ezagupidetako nagusienetako batetan eginez, hots Erresumako Boletin Ofizialean argitaratzea.

La modificación subjetiva en uno de los elementos personales de la relación jurídica, sin alterar para nada el contenido sustantivo de la misma, constando la publicidad «erga omnes» de la cesión en uno de sus más principales medios de conocimiento. Pág. 4913.

⁸ 2/1998 Legea, otsailaren 20koa, Euskal Autonomia Erkidegoko herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzkoa / Ley 2/1998, de 20 de febrero, de la potestad sancionadora de las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco (EHAA, 1998ko martxoaren 11a, asteazkena, 48 zk., 4307 or.).

⁹ 1984.eko Abenduaren 5eko Erabakia, Sopuertako (Bizkaia) «El Mercadillo» izeneko auzoan 60 etxebizitza eraikitzeko lanak egiteko egindako itunea deuseztatzea erabakiz / Resolución de 5 de Diciembre de 1984, por la que se acuerda dar por resuelto el contrato formalizado para la ejecución de las obras de construcción de 60 viviendas en el barrio El Mercadillo de Sopuerta (EHAA, 1984ko abenduaren 19a, 216. zk., 4913 or.).

f) *Ex novo*¹⁰

«Ex novo» zerbitzu espezializatuak sortzea ekidin eta dagoeneko egon badauden zerbitzuetatik abiatu behar da.

La generalización del sistema evitando la creación de servicios especializados «ex novo»; sino partiendo de los ya existentes.

g) *Habeas corpus*¹¹

Erruztatuaren zitazioa. Atxiloketa. Habeas Corpusa. Abokatuaren laguntza. Auziperaketa. Auziperatze autoaren aurkako errekurtsoa. Auziperatuen deklarazioa. Lekukoen froga. Kareoa. Peritu bidezko froga.

Citación del inculgado. Detención. Habeas Corpus. Asistencia letrada. El procesamiento. Recursos contra el auto de procesamiento. Declaración de los procesados. Prueba testifical. Careo. Prueba pericial.

h) *In peius*¹²

Izan ere, legezketasun- printzipioaren ondorioz, zigorrak ezin dira analogiaz «in peius» aplikatu, debekatuta baitago, hain justu, 3. zenbaki horrek.

El número 3 responde a la prohibición de aplicación analógica «in peius» que rige en el ámbito punitivo y que es corolario del principio de legalidad.

¹⁰ 1/1996 Legea, apirilaren 3koa, larrialdiak kudeatzekoa / Ley 1/1996, de 3 de abril, de gestión de emergencias (EHAA, 1996ko apirilaren 22a, astelehena, 77 zk., 6710 or.).

¹¹ Erabakia, 1997ko azaroaren 26koa, Giza Baliabideak Antolatzeko zuzendariarena, Justizi Administrazioako ofizial, laguntzaile eta agenteen kidegoan sartzeko hautaprotararako deialdia egiten duten Justizi Ministerioaren 1997ko azaroaren 17ko Aginduak argitaratzen dituen / Resolución de 26 noviembre de 1997, del Director de Ordenación de Recursos Humanos, por la que se dispone la publicación de las Ordenes del Ministerio de Justicia de 17 noviembre de 1997, por la que se convocan pruebas selectivas para ingreso en el Cuerpo de Oficiales, Auxiliares y Agentes de la Administración de Justicia (EHAA, 1997ko abenduaren 4a, osteguna. 233 zk., 18779 or.).

¹² 2/1998 Legea, otsailaren 20koa, Euskal Autonomia Erkidegoko herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzkoa / Ley 2/1998, de 20 de febrero, de la potestad sancionadora de las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco (EHAA, 1998ko martxoaren 11a, asteazkena. 48 zk., 4299 or.).

i) *Inter vivos / mortis causa*¹³

Pertsona fisiko edo juridikoek unibertsitate pribatuen gainean dituzten titularitatea guztiz edo zati batean eskualdatzea edo uztea dakarten egin-tza edo negozio juridikoak, baldin eta kostubidez edo doan, inter vivos edo mortis causa, erakunde titularraren administrazio- batzordeko kide iza- teko eskubidea ematen badute.

Los actos o negocios jurídicos que impliquen la transmisión o cesión, total o parcial, cuando implique derecho a ocupar puesto en el consejo de administración de la entidad titular, a título oneroso o gratuito, inter vivos o mortis causa, de la titularidad que las personas físicas o jurídicas ostenten sobre las Universidades privadas.

j) *Ipsa iure*¹⁴

Batzordea ondorengo xedapenek arautuko dute, eta xedapen horiek ipso iure indargabetuta geratuko dira aipatutako Araudia onartzen denean.

La Comisión se regirá por las siguientes disposiciones, las cuales quedarán derogadas ipso iure en el mismo momento en que se aprobare el antedicho Reglamento.

¹³ 19/1998 Legea, ekainaren 29koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Unibertsitatea Antolatzekoa / Ley 19/1998, de 29 de junio, de Ordenación Universitaria de la Comunidad Autónoma del País Vasco (EHAA, 1998ko uztailaren 16a, osteguna. 133 zk., 13297 or.).

¹⁴ 38/2007 Dekretua, martxoaren 6koa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailaren eta CCOO, CSE/CSIF, LAB eta UGT sindikatuen artekoa, zeinaren bidez onartu egiten baita Euskal Autonomia Erkidegoan Justizia Administrazioarentzat lan egiten duten funtzionarioen lan baldintzak arautzeko den III. Akordioa eta eraberritu Bulego Judiziala / Decreto 38/2007, de 6 de marzo, por el que se aprueba el III Acuerdo regulador de las condiciones de trabajo del personal funcionario al servicio de la Administración de Justicia en la Comunidad Autónoma de Euskadi y de reforma de la Oficina Judicial entre el Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social y las organizaciones sindicales CCOO, CSI/CSIF, LAB y UGT (EHAA, 2007ko martxoaren 15a, osteguna. 53 zk., 6312. or.).

k) *Iter*¹⁵

Hirugarren atalburuko gainerako atalek jardunbidearen «iter»a jaso dute, eta hauxe da aipagarriena.

El resto del articulado del Capítulo tercero contiene el «iter» procedimental, del que lo más destacable es lo siguiente.

l) *Ius puniendi*¹⁶

Lehenengo adibidea:

Etorkizunean «ius puniendi» enborrak administrazio-arloko adarrak ere hartuko ditu, behar bada, elikatzeke iturri, baina, gaur egun, oinarriko printzipioak, zigor-lanaren zati komuna, Zuzenbide Penalean dago, aipatutako kodean jasota dagoen horretan alegia, eta, hain zuzen ere, zati orokorreko arauetan edo arau horien izateko arrazoietan».

Puede que en el futuro el tronco común del «ius puniendi» se nutra también de sus ramas administrativas, pero, en la actualidad, los principios esenciales, lo común punitivo se encuentra en las normas de la parte general del Derecho Penal que contiene el meritado Código, o en la razón de ser de tales normas.

¹⁵ 2/1998 Legea, otsailaren 20koa, Euskal Autonomia Erkidegoko herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzkoa / LEY 2/1998, de 20 de febrero, de la potestad sancionadora de las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco (EHAA, 1998ko martxoaren 11a, astezkena, 48. zk., 4311 or.).

¹⁶ 2/1998 Legea, otsailaren 20koa, Euskal Autonomia Erkidegoko herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzkoa / Ley 2/1998, de 20 de febrero, de la potestad sancionadora de las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco (EHAA, 1998ko martxoaren 11a, astezkena, 48 zk., 4290 or. eta 4307 or.)

Bigarren adibidearen datuak: Agindua, 2002ko abenduaren 20koa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren sailburuarena, Gipuzkoako Abokatuen Elkargoaren estatutuak onartzeko dena / Orden de 20 de diciembre de 2002 del Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social por la que se aprueban los Estatutos del Ilustre Colegio de Abogados de Gipuzkoa (EHAA, 2003ko otsailaren 21a, ostirala. 37 zk., 2635 or.).

Testu bereko beste leku batean:

«Ius puniendi»a gauzatzeko behar diren jardunbideko bermeak —interesatuen eskubideak behar bezala zaintzea dela eta— jardunbidearen Administrazio Zuzenbidean jasota daude dagoeneko: bai lege-testuetan eta baita lege horiek Konstituzioarekin bat datozen jakiteko normaltasunez egiten ari diren interpretazioetan.

Beste testu bat:

Arreta berezia eman zaio Instruktoarea izendatzeko sistemari, abiapuntuko premisa gisa hartuta ez duela Gobernu Batzordeak (prozedurari hasiera ematea eta, egoki denean, zigorra erabakitzen duen organoak) bere aldetik eta bere kasa izendatu behar, organo erabaki-hartzailearen eta organo instruktorearen artean ius puniendi administratiboa bereizteko printzipioaren berme beteago gisa.

Las garantías procedimentales que requiere el ejercicio del «ius puniendi», desde la perspectiva del adecuado ejercicio de los derechos de los interesados, están ya en el Derecho Administrativo del procedimiento: en los textos legales y en la interpretación conforme a la Constitución que de ellos se viene haciendo con normalidad.

Particular atención ha merecido el sistema de designación del Instructor, a partir de la premisa de que no sea designado discrecionalmente por la Junta de Gobierno (órgano que decide la incoación del procedimiento y, en su caso, acuerda la sanción) como garantía más plena del principio de separación en materia de ius puniendi administrativo, entre el órgano decisor y el órgano instructor.

m) *Mortis causa*¹⁷

Aurreko apartatueta xedatutakoaren kaltetan gabe, «mortis causa» eskurapenetan oinarri likidagarria lortzeko, 20. artikuluko 1. zenbakian jasotako ahaidetasun mailen arabera dagokion murrizpena egingo da oinarri ezagarran.

En las adquisiciones «mortis causa», sin perjuicio de lo dispuesto en los apartados anteriores, la base liquidable se obtendrá aplicando en la base imponible la reducción que corresponda según los grados de parentesco establecidos en el número 1 del artículo 20.

n) *Non bis in idem*¹⁸

«Non bis in idem» printzipioa bete behar da zigortzeko erregimena arau-gintza-mailara eramaten den momentutik bertatik.

El principio «non bis in idem» debe ser cumplido desde el mismo momento de la configuración normativa del régimen sancionador.

Testu bereko beste leku batean:

«Non bis in idem» printzipioa errespetatuko bada, ezin da arau edo arauhausteen konkurtsorik gertatu, bereizi egin behar dira.

El respeto por el principio «non bis in idem» requiere la solución y diferenciación clara de los concursos apartados de normas y los concursos de infracciones.

¹⁷ 9/2008 Foru Araua, abenduaren 23koa, Gipuzkoako lurralde historikoaren 2009. urterako aurrekontu orokorrak onartzen dituen / Norma Foral 9/2008, de 23 de diciembre, por la que se aprueban los presupuestos generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa para el año 2009 (EHAA, 2009ko maiatzaren 25a, astelehena. 97 zk., 2948 or.).

¹⁸ 2/1998 Legea, otsailaren 20koa, Euskal Autonomia Erkidegoko herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzkoa / Ley 2/1998, de 20 de febrero, de la potestad sancionadora de las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco (EHAA, 1998ko martxoaren 11a, asteazkena, 48 zk., 4293 or. eta 4304. or.).

o) *Petitum*¹⁹

Eskumen-gaiei buruzko prozedurari ekiteko eskabidean jasotako petitum-arekin bat etorritz agertu beharko du bere iritzia Ebazpen Batzordeak.

Esta Comisión Arbitral está obligada a pronunciarse de forma congruente con el petitum contenido en la solicitud de iniciación del procedimiento sobre cuestiones de competencia.

p) *Quantum*²⁰

(...) ezinezkoa da behin-betiko quantuma finkatzea aukeratutako eskaintzen analisía egin arte.

(...) la imposibilidad de fijar el quantum definitivo en tanto en cuanto no se procediera al análisis de las ofertas seleccionadas.

¹⁹ Ebazpena, 1/2000 zenbakidun eskumen gatazkari dagokiona; Eusko Jaurlaritzako legegariaren ordezkariak Foru Araurako Proposameneko artikuluko bakarrekiko laugarren paragrafoaren eta xedapen iragankorraren aurka aurkeztutakoa. Proposamen hori, Foru Aldundiaren ordezkariak eginez «Gipuzkoa-Donostia Kutxa-Caja Gipuzkoa-San Sebastián» Asanbladako kide izango diren kontseilari nagusiak aukeratzeari buruzkoa, Euskal Sozialistak Batzar Taldeak aurkeztu eta Gipuzkoako Batzar Nagusiek 2000ko maiatzaren 31n egindako bilkuran onartu zuten / Resolución de la cuestión de competencia número 1/2000, formulada por la representación letrada del Gobierno Vasco contra la Proposición de Norma Foral, artículo único, párrafo cuatro y su disposición transitoria, presentada por el Grupo Juntero Socialistas Vascos y tomada en consideración por las Juntas Generales de Gipuzkoa en la sesión celebrada el 31 de mayo de 2000, sobre Designación de Consejeros Generales miembros de la Asamblea de «Gipuzkoa-Donostia Kutxa-Caja Gipuzkoa-San Sebastián» en representación de la Diputación Foral (EHAA, 2001eko urtarrilaren 30a, asteartea, 21 zk., 1606 or.).

²⁰ Erabakia, 1994ko otsailaren 14koa, Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren lehendakariarena, Euskal Autonomi Elkartearen 1992. urtealdiko Kontu Orokorraren Fiskalizatze Txostena argitaratu ematen duena / Resolución de 14 de febrero de 1994, del Presidente del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, por la que se hace público el Informe de Fiscalización de la Cuenta General de la Comunidad Autónoma de Euskadi del ejercicio 1992 (EHAA, 1994ko urriaren 27a, osteguna. 205 zk., 12736 or.).

q) *Statu quo*²¹

Legeak, gaur egungo «statu quo» errespetatuz, elkargoak antolatzekeo zein titulazio eskatu erabakitzekeo ahalegin garbia egin du.

En este sentido la ley, respetando el «statu quo» actual, aborda de un modo decidido el carácter de la titulación requerida, tomando el título académico universitario como elemento determinante de la organización colegial.

r) *Status*²²

Elorrioko arkeologi guneak Erdi Aroan eraikitako barruti harresitua ezezik (honek harresiz kanpoko herri zatiak ez bezalako lege statusa du) (...)

En el área definida como zona arqueológica de la villa de Elorrio se incluye, además del recinto murado de fundación medieval que goza de un status jurídico diferente a la población extramuros (...)

²¹ 18/1997 Legea, azaroaren 21ekoa, tituludun lanbideei eta profesionalen elkargo eta kontseiluei buruzkoa / Ley 18/1997, de 21 de noviembre, de ejercicio de profesiones tituladas y de colegios y consejos profesionales (EHAA, 1997ko abenduaren 11, osteguna, 237 zk., 3. or.).

²² 37/1998 Dekretua, martxoaren 10ekoa, Elorrioko Hiriaren (Bizkaia) Arkeologia Esparrua Kultura Ondasun gisa, Monumentu Multzoz izendapenez, sailkatzekeo eta hura zaintzekeo babes arauak ezartzeko dena. EHAA / Decreto 37/1998, de 10 de marzo, por el que se califica, como Bien Cultural, con la categoría de Conjunto Monumental, la Zona Arqueológica de la Villa de Elorrio (Bizkaia), y se fija su régimen de protección (EHAA, 1998ko martxoaren 24a, asteartea, 56 zk., 5149 or.).

s) *Ultra vires*²³

Baina kasu horien artean ez dago proiektuaren bitartez indarrean jarri nahi den kasua, izan ere, horrela, *ultra vires* erori eta legezketasun-prinzipioa urratuko luke.

Añade el dictamen que el legislador ha prefigurado enteramente y de forma taxativa los supuestos que permiten asignar gratificaciones por servicios extraordinarios, sin que entre ellos figure el que se quiere poner en vigor a través del proyecto que, por tanto, incurre en *ultra vires* con infracción del principio de legalidad.

Beste adibide bat:

Hala ere, indarrean den hitzarmeneko artikuluei *ultra vires* indarraldia ematen die indarrean den legediak —hitzarmena orain bertan behera utzi da, beste bat negoziatzen ari delako—.

La vigencia de dichos artículos y anexo será para el período 2001-2004, tal y como se señala en la nueva redacción del artículo 4, sin perjuicio de la vigencia *ultra vires* que la legislación vigente atribuye a los artículos del Convenio vigente, ahora denunciado por negociación de otro.

²³ Erabakia, Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osokoak 2008ko abenduaren 30eko bilkuran hartua Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorraren kontuari buruzko fiskalizazioa, 2007, behin betiko txostena onesten duena / Acuerdo del Pleno del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas de aprobación definitiva del Informe de fiscalización de la Cuenta de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi, 2007, adoptado en sesión de 30 de diciembre de 2008 (EHAA, 2009ko otsailaren 25a, asteazkena, 39 zk., 1025 or.).

Bigarrenaren datuak: Ebazpena, 2001eko urriaren 24koa, Lan eta Gizarte Segurantzaren zuzendariarena, «Tubos Reunidos, S.A.» enpresako Zentroen Arteko Batzordearen Hitzarmen Kolektiboko Negoziazio Batzordearen Akordioa erregistratzeko eta argitaratzeko / Resolución de 24 de octubre de 2001, del Director de Trabajo y Seguridad Social, por la que se dispone el registro y publicación del Acuerdo de la Comisión Negociadora del Convenio Colectivo del Comité Intercentros de «Tubos Reunidos, S.A.» (EHAA, 2001eko abenduaren 19a, asteazkena, 244 zk., 22571 or.).

1.2.2. BIZKAIKO ALDIZKARI OFIZIALA (BAO)

Kasu honetan hamalau adibide aurkitu eta jaso ditugu mota askotako testuetatik.

a) *Ad hoc*²⁴

Udalak, ad hoc inprimaki normalizatuak egin izatearen kasuan izan ezik, eskabideek, 30/1992 Legearen 70 artikuluan ezarri diren betekizunak zorrotzean betetzeaz gain.

Salvo que el Ayuntamiento elabore impresos normalizados ad hoc, las solicitudes, además del estricto cumplimiento de los requisitos establecidos en el artículo 70 de la Ley 30/1992.

b) *Erga omnes*²⁵

Lege-eredua sortzerakoan, oso arau zehatzak artikulatu dira, nola negoziatzaileak hautatzeari hala gehiengoen printzipioa lortzeko eskakizunari dagokionez, negoziazio kolektiboaren emaitza den hitzarmen kolektiboak erga omnes eraginkortasun pertsonala izan dezan.

Se ha optado por instaurar un modelo legal con articulación de reglas muy concretas, tanto en lo que hace a la selección de los sujetos negociadores, como en la exigencia de lograr un principio de mayorías para que el producto de la negociación colectiva —el convenio colectivo— esté provisto de eficacia personal erga omnes. Pág. 13.

²⁴ Otsailaren 28ko 238/2008 Foru agindua, Zamudio udalerriko Plangintzako Arau Subsidiarioei buruzkoa (1. berrikuspena) / Orden foral 238/2008, de 28 de febrero, relativa a las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Zamudio (1.ª Revisión), (BAO, 2008ko apirilaren 30a, asteazkena, 82. zk., 10803 or.).

²⁵ Ebazpena, 2009ko azaroaren 24koa, Enplegu eta Gizarte Gaietako Saileko Bizkaiko ordezkariera. Honen bidez ebazten da Bizkaiko Etxez Etxeko Laguntza sektorearen Hitzarmen kolektiboari buruz (Kode zenbakia: 4804565) EAEko Auzitegi Nagusiko Lan Arloko Salak eman duen epaia erregistratu eta argitaratzea / Resolución de 24 de noviembre de 2009, de la Delegada Territorial de Bizkaia del Departamento de Empleo y Asuntos Sociales, por la que se resuelve el registro y publicación de la Sentencia del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, Sala de lo Social, relativa al convenio colectivo del sector de Ayuda a Domicilio de Bizkaia. Código número 4804565 (BAO, 2009ko abenduaren 4a, ostirala, 233. zk., 13 or.).

c) *Ex novo*²⁶

Baina, batez ere, gune figurati-
boak ez dira inoiz «ex novo» lehe-
neratuko, ez eta obraren figurazioari
eragiten dioten elementuak sartuko
ere.

(...) especialmente no reinte-
grando jamás «ex novo» zonas figu-
rativas o insertando elementos deter-
minantes de la figuración de la obra.

d) *Ex post*²⁷

Era berean, bai zerga-datutegieta-
rako sarbidea bai Ogasun eta Finan-
tza Sailean diharduten langile guztiek
datutegi horiei ematen dieten era-
bilera kontrolatzeko funtzioak da-
gozkio eskusibotasunez, datutegion
erabileraz egiten den ex post begizta-
pena barne.

Igualmente, le competen en exclu-
siva las funciones de control sobre el
acceso a las bases de datos tributa-
rias y la utilización de las mismas por
parte de todo el personal que presta
sus servicios en el Departamento de
Hacienda y Finanzas, incluyendo la
verificación ex post del empleo de las
citadas bases de datos.

²⁶ 7/2006 Dekretua, urtarrilaren 17koa, Meñakan (Bizkaia) den Otuna Jauregia, Mo-
numentu izendapenez, Kultura Ondasun gisa deklaratzeko dena / Decreto 7/2006, de 17
de enero, por el que se califica como Bien Cultural, con la categoría de Monumento, el
Palacio Otuna, sito en Meñaka (Bizkaia). BOB núm. 33. Jueves, 16 de febrero de 2006
(BAO, 2006ko otsailaren 16a, osteguna, 33. zk., 3894 or.).

²⁷ 178/2007 Foru Dekretua, urriaren 23koa, Ogasun eta Finantza Sailaren egitura or-
ganikoari buruzko araudia onesten duena / Decreto Foral 178/2007, de 23 de octubre,
por el que se aprueba el Reglamento de Estructura Orgánica del Departamento de Ha-
cienda y Finanzas (BAO, 2007ko urriaren 25a, osteguna, 209. zk., 26753 or.).

e) *In itinere*²⁸

Parte-hartzaileentzako istripu-aseguruak, bai trebakuntzako ikastaroetan bai lan praktketan, baita kasu bietako «in itinere» delakoan, honako hauek estali beharko ditu: gutxienez 35.000 euroko zenbatekoko heriotza, 60.000 euro arteko ezintasun iraunkorra eta ezintasun osoa eta mugarik gabeko zenbatekoko osasun-gastuak.

El seguro de accidentes para los participantes, tanto en los cursos de formación como durante las prácticas laborales así como in itinere, en ambos casos deberá incluir la cobertura por fallecimiento por importe mínimo de 35.000 euros, invalidez permanente e invalidez absoluta hasta 60.000 euros y los gastos sanitarios en que la cantidad será ilimitada.

f) *In situ*²⁹

Araztegiko lokatzak, eguneko 131 kg-tan zenbatu eta, zeintzuetarako, in situ lehortzeko prozesu bat aurrez ikusi delarik araztegian bertan, indarrean den legeriaren arabera kudeatu beharko dira, ezin direla bota ezta gordailuan utzi, salbu eta aldi baterako pilatzeko aurrez ikusi den biltegian, partzelan bertan.

Los lodos de depuradora, que son cuantificados en 131 kg./día, y para los que se prevé un proceso de secado in situ, en la propia depuradora, deberán ser gestionados conforme a la normativa vigente, no pudiendo ser vertidos ni depositados, salvo en el depósito previsto para su almacenamiento temporal, en la propia parcela.

²⁸ Bizkaiko Foru Aldundiaren 107/2009 Foru Dekretua, ekainaren 23koa. Horren bitartez arautzen dira Lan eta Trebakuntza Sailaren 2009ko «Trebakuntzaren bitartez lana sustatzeko ekintzak» programaren, oinarriak eta deialdia / Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 107/2009, de 23 de junio, por el que se regulan las bases y la convocatoria del programa «Acciones de apoyo al empleo mediante la formación» del Departamento de Empleo y Formación para el año 2009 (BAO, 2009ko ekainaren 29a, astelehena., 121 zk., 11 or.).

²⁹ Urtarrilaren 20ko 87/2010 Foru Agindua, Artzentalesen, hondakin uren araztegia (HURA) ezartzeko Plan Berezia buruzkoa / Orden Foral 87/2010, de 20 de enero, relativa al Plan Especial para la implantación de la estación de aguas residuales (EDAR) en Artzentales (BAO, 2010ko urtarrilaren 29a, ostirala, 19. zk., 2446 or.).

g) *Inter vivos*³⁰

(...) babes publikoko etxebizitzaren gaineko jabariaren lehenengo inter vivos eskualdaketa, baldin eta eskualdaketa hori etxebizitzaren behin betiko kalifikazioaren hurrengo sei urteen barruan egiten bada.

(...) la primera transmisión inter vivos del dominio de las viviendas de protección pública, siempre que tengan lugar dentro de los seis años siguientes a la fecha de su calificación definitiva.

h) *Ius variandi*³¹

Leioako Hiria Antolatzeko Plan Orokorren aldaketa puntual horrek administrazio antolatzaileak «ius variandi» gauzatzeko duen eskubideari erantzuten dio, antolamendua lursailen egoera urbanistikoa juridikoa aldatzea eskatzen zuten egoera ekonomikoetara eta sozialetara egokitze aldera, 1993ko otsailaren 16ko Auzitegi Gorenaren Administrazioarekiko Auzien Salaren epaiaren ildotik, honako hau dionean: «administrazioaren ius variandik aurreko egoera juridiko urbanistikoa aldatzea eskatzen duten egoera demografikoak, sozialak eta ekonomikoak ahalbidetzen dituela».

Esta Modificación Puntual del PGOU de Leioa obedece al ejercicio legítimo por parte de la Administración planificadora del «ius variandi» para acomodar el planeamiento a las circunstancias económicas y sociales que demandaban una alteración o cambio de la situación jurídica urbanística de los terrenos, en la línea de la Sentencia de la Sala de lo Contencioso Administrativo del Tribunal Supremo, de 16 de febrero de 1993, cuando señala que «el ius variandi de la Administración permite circunstancias demográficas, sociales y económicas que demanden una alteración de la anterior situación jurídica urbanística».

³⁰ Bizkaiko Foru Aldundiaren 65/2009 Foru Dekretua, maiatzaren 5koa; honen bidez, zenbait zerga-araudi aldatzen dira / Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 65/2009, de 5 de mayo, por el que se modifican diversos reglamentos tributarios (BAO, 2009ko maiatzaren 13a, asteazkena, 88. zk., 14 or.).

³¹ Osoko bilkurak 2009ko uztailaren 29ko batzarrean hartutako 4. zenbakidun erabakiaren bidez honako prozedura hau jarri du martxan: HAPOko 37. arloa (Ondiz hutsik) antolatzearen ondoriozko karga eta onuren berdinbanaketako irizpideak finkatzen

i) *Non bis in idem*³²

Zigor prozedura. Prozesu-bermeak. Non bis in idem printzipioa.

Procedimiento sancionador. Garantías procesales. El principio de non bis in idem.

j) *Pacta sunt servanda*³³

Interes publiko hori dago baita, «ius variandi»aren atzean, alde bakarrak (hau da, Administrazioak) administrazio-kontratuak aldatzeko eskubidearen atzean; izaera pribatuko kontratuetan, ordea, «pacta sunt servanda» (hitzartutakoa bete egin behar da) printzipioak agintzen du.

Este interés público es el mismo que subyace, por ejemplo, en el instituto del «ius variandi» o derecho de modificación unilateral de los contratos administrativos que se atribuye a la Administración, que a diferencia de lo que es norma en los contratos de naturaleza privada, en los que rige el principio de «pacta sunt servanda» (los pactos deben cumplirse).

dituen hirigintzako hitzarmena berritzea / Mediante acuerdo plenario número 4 adoptada en la sesión celebrada el día 29 de julio 2009, se inició el procedimiento de novación del Convenio Urbanístico que fija los criterios de equidistribución de los beneficios y cargas derivados de la ordenación del Área 37 del P.G.O.U.-Ondiz Vacante (BAO, 2009ko abuztuaren 18a, asteartea, 156. zk., 4 or.).

³² Iragakia, Amorebieta-Etxanoko Udalean Udaltzain lanpostu bi karrerako funtzionarioz hornitzeko deialdiaren oinarriak / Anuncio, Bases de convocatoria para la provisión como funcionario de carrera de dos plazas de agentes de la Policía Municipal del Ayuntamiento de Amorebieta-Etxano (BAO, 2007ko irailaren 17a, astelehena, 182. zk., 23936 or.).

³³ Erabakia, Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osokoak 2009ko uztailaren 5ean hartutakoa, Bilboko Garraio Zerbitzu Publikoak Emateko Kontratuaren Fiskalizazio Txostena (Bilbobus) behin-betiko onesten duena / Acuerdo del Pleno del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas de aprobación definitiva del informe de Fiscalización del Contrato de Prestación del Servicio Público de Transportes de Bilbao (Bilbobus), adoptado en sesión de 5 de junio de 2009 (BAO, 2009ko abuztuaren 10a, astelehena, 157. zk., 79 or.).

k) *Pro forma*³⁴

Aurrekontua «pro forma» fakturakin babestea. Faktura horiek eskatutako gastu zuzenen % 80 bete beharko dute, gutxienez, eta lotura zuzena izan beharko dute aurrekontuko partida ezberdinekin.

El respaldo del presupuesto con facturas pro forma. Estas facturas deberán sumar al menos el 80% de los gastos directos solicitados y guardar una clara relación con las distintas partidas del presupuesto.

l) *Pro indiviso*³⁵

57.298 m²-ko azaleran 1etik 6ra bitarteko pabiloiak eta bulegoak zeuden. Erakustazoka sortu zuten hiru erakundeen izenean zeuden erregistratuta lursailok, partaidetzako jatorrizko ehunekoetan pro indiviso-ko jabe modura: Merkataritza Ganbera % 40, BFA % 30 eta Bilboko Udala % 30. Lursail horiek erabiltzeko laga zitzaizkion doan FIMBI

Terrenos sobre los que se ubican los pabellones 1 a 6 y oficinas, con una superficie de 57.298 m². Estos terrenos se encontraban registrados a nombre de las tres instituciones fundadoras de la Feria, como propietarios en pro indiviso en los porcentajes originales de participación, es decir, 40% Cámara de Comercio, 30% DFB y 30% Ayuntamiento de Bilbao, y fueron cedidos gratuitamente en uso a FIMB.

³⁴ Bizkaiko Foru Aldundiaren 22/2010 Foru Dekretua, otsailaren 23koa, garapenerako lankidetzaz, sentsibilizazio eta hezkuntza proiektuak egiteko diru-laguntzak 2010eko ekitaldian nola eman araupetu duena / Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 22/2010, de 23 de febrero, por el que se regula la concesión de subvenciones para proyectos de cooperación, sensibilización y educación al desarrollo, en el ejercicio 2010 (BAO, 2010eko martxoaren 2a, astearte, 41. zk., 5651 or.).

³⁵ Erabakia, Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osokoak 2006ko abenduaren 26ko bilkuran hartua, «Bilboko Erakustazoka desegitea eta Bilbao Exhibition Centre sortzea; Instalakuntzak eraikitzeko gastuen analisia 2005eko abenduaren 31ra arte», behin-betiko oniritzen duena / Acuerdo del Pleno del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas de aprobación definitiva del Informe de fiscalización de la «Disolución de la Feria Internacional de Muestras de Bilbao y constitución del Bilbao Exhibition Centre; Análisis de los gastos de construcción de sus instalaciones hasta el 31 de diciembre de 2005», adoptado en sesión de 26 de diciembre de 2006 (BAO, 2007ko martxoaren 9a, ostirala, 49. zk., 6977 or.).

m) *Quantum*³⁶

Hala ere, konpentsazioa deritzon «quantum» horrek sortzen dituen zailtasunak alde batera utzita, eta bi arategi ezberdin ditugula kontuan hartuta.

Sin embargo, superando las dificultades que conlleva obtener el «quantum» de la compensación, puesto que nos encontramos ante dos normativas diferentes.

n) *Sine qua non*³⁷

Arrisku egoerak (batez ere tunel barruko sutea) izan ditzakeen ondorioak arintzea, honako honetarako sine qua non baldintzak emanaz.

Mitigar las posibles consecuencias de una situación de riesgo, fundamentalmente derivada de un incendio en un túnel, proporcionando los requisitos sine qua non ideales.

1.3. *Latinezko esamoldeak doktrinan*

Doktrina-lanetan eta unibertsitate-lanetan latinismo gehiago agerzen dira aurreko atalean aztertutako xedapen orokorretan eta administrazio-egintzetan baino. Mundu judizialari dagokionez, latinismoen

³⁶ 183/1999 Foru Dekretua, azaroaren 30ekoa, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 21eko 10/1998 Foru Arauaren laugarren xedapen gehigarrian aipatu konpentsaziorako prozedura eta baldintzak zehaztuko dituen / Decreto Foral 183/1999, de 30 de noviembre, por el que se determina el procedimiento y las condiciones para la compensación, a que se refiere la Disposición Transitoria Cuarta de la Norma Foral 10/1998, de 21 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas (BAO, 1999ko abenduaren 15., asteazkena, 239. zk., 18899 or.).

³⁷ 135/2006 Foru Dekretua, errepideetako tunelen segurtasunari buruzkoa, 2006ko abuztuaren 23koa, Foru Aldundi honetako Gobernu Kontseiluak 2006ko abuztuaren 23ko batzarrean onartuta / Decreto Foral 135/2006, de 23 de agosto, sobre seguridad de túneles en carreteras, aprobado por el Consejo de Gobierno de esta Diputación Foral, en reunión de 23 de agosto de 2006 (BAO, 2006ko urriaren 11a., asteazkena, 195. zk., 24374 or.).

erabileraren laburpena puntuan egin dugu, hain zuzen, liburuaren bigarren sarreran.

Atal honetan, jatorrian euskaraz idatzitako zuzenbideko lan akademiko batean agertzen diren latinismoak jaso ditugu. Alberto Atxabal irakasle lankideak idatzitako eskuliburua da eta finantza eta tributu arloko gaiak jorratzen ditu³⁸.

Latinismoen erabilera aztertzeko lan hori hautatu dugu bi arrazoi-rengatik: batetik, euskaraz pentsatutako lana da, hau da, latinismoak modu naturalean agertzen dira euskarazko diskurtsoan; eta bestetik, latinismoen kopurua beste lanetan baino txikiagoa da, eta horri esker, adibide guztiak leku txikian jaso ahal izan ditugu.

Jarraian, aipatutako lanean agertzen diren latinismoak aipatuko ditugu. Latinismoa adierazi eta ondoren testuingurua ematen da, hau da, zein testutan agertzen den. Horrez gain, oin-oharrean, erreferentzia liburuko zein orrialdetatik hartu dugun adierazi dugu.

a) ***A contrario***³⁹

TLOren 14. artikulua *a contrario* interpretatu behar da.

b) ***Ad valorem***⁴⁰

Legeak berak aipatzen ditu tasa finkoak, portzentajeetatik edo *ad valorem* tasetatik bereiztu nahi dituenean.

³⁸ ATXABAL RADA, A.: *Finantza eta Tributu Zuzenbidea: zati orokorra*, Deustuko Unibertsitatea, 2008, Bilbo. Lanak gaztelaniazko bertsioa du, *Derecho Financiero y Tributario: parte general*, izenekoa (urte eta argitaletxe berean argitaratutakoa) baina, esan bezala, jatorrizko lana euskarazkoa da. Izan ere, euskarazko lanak aurrekari bat izan zuen 2000. urtean, hain zuzen, *Finantza Zuzenbidea* eskuliburua; euskaraz bakarrik plazaratu zen.

³⁹ 66. or.

⁴⁰ 142. or.

c) *Apud acta*⁴¹

Egiaztatze bide ezberdinak daude: dokumentu publikoa, notarioak legebidezaturiko dokumentu pribatua edo *apud acta*, hots, ordezkaria eta ordezkaria administrazio organoan agertzea.

d) *De iure / De facto*⁴²

Gainera, zergaduna beti izan behar da *de iure* zergaduna, eta ez *de facto* zergaduna.

e) *Ex lege*⁴³

Erakunde horren definizioa ematean, esan daiteke tributua dela *ex lege* eraturako betebeharra, horren ezaugarri nagusiak ondokoak izanik (...)

Betebehar hori *ex lege* sortzen zen eta Zuzenbide pribatupeko betebeharren antzekoa zen.

Une honetan, ordea, betebehar horrek dituen ezaugarriak jorratuko ditugu: *ex lege* betebeharra da, Zuzenbide publikoko betebeharra, eta zerbait emateko betebeharra.

Izan ere, zergak *ex lege* izaerako betebeharra sortzen du, Zuzenbide publikoa den eta diruzko edukia duen betebeharra, hartzekoduna herri erakunde bat izanik (...)

f) *Ex novo*⁴⁴

Ezin baieztatu daiteke analogiak Zuzenbidea *ex novo* sortzen duenik, edo kasu zehatzari aplikatu beharreko erregelak eratzen dituenik.

⁴¹ 132. or.

⁴² 114. or.

⁴³ 23., 76., 80. eta 88. or.

⁴⁴ 65. or.

g) ***Imperium***⁴⁵

Historiari helduta, XIX. mendean tributua Estatuaren *imperium* horren agerpenetarik bat zen; zergadunak tributua onartu behar zuen eta Estatuak tributua ezartzeko eskubidea zuen.

Ondorenez, tributua oinarri juridikoa, Estatuaren *imperium* boterean baino, zama publikoei aurre egiteko ekonomi ahalbide egokia izate horretan datza.

h) ***In dubio contra Fiscum / In dubio pro reo***⁴⁶

Ildo horretatik, hitzezhitzezko interpretazioa eta *in dubio contra Fiscum* esamoldea sortu ziren, bigarren hori Zigor zuzenbideko *in dubio pro reo* printzipioaren parekoa zelarik.

i) ***In dubio pro actione***⁴⁷

(...) legeak euren espiritua araberaz interpretatu behar dira; *in dubio pro actione* printzipioa ezarri da eta abar.

j) ***In dubio pro Fiscum***⁴⁸

Bigarren irizpidea aurrekoaren alderantzizkoa da, *in dubio pro Fiscum* esamoldea baita horren oinarri.

Bada *in dubio pro Fiscum* teoriari eusten dion ikusmolde modernoagorik ere.

⁴⁵ 76. eta 84. or.

⁴⁶ 58. or.

⁴⁷ 288. or.

⁴⁸ 58. or., birritan.

k) *In vigilando*⁴⁹

Administratzaile horiek honako kariongatik erantzun behar dute: eurei dagozkien eginbeharrak ez betetzeagatik, *in vigilando* errudunak izateagatik edo arauhaustek eragin dituzten erabakiak hartzeagatik.

l) *Inter vivos / Mortis causa*⁵⁰

Ez da erantzukizunik izango ondasun bakarria eskuratu bada (ekonomi jarduerari eutsi ez bazaio), *mortis causa* oinordetza bada (arau bereziak dituelako), ezta eskualdatzailea konkurtso-egoeran badago eta konkurtso-prozeduran baitan eskuratu bada ustiapena.

Dena den, tributua *inter vivos* eskualdaezina dela ere zalantzan jarri da.

Eskualdaketa *mortis causa* eginez gero, ez da azkentzerik gertatzen, Estatuari utzitako jaraunspena inbentario onuraren arabera onartu dela ulertu behar baita (KZren 957. art.), eta halakoetan kausatzaileak jaraunslarekin dituen zorrak ez direlako azkentzen.

Inter vivos eskualdaketak, berriz, legearen aginduz egin beharko lirateke (ez negozio juridiko zehatz baten bitartez), eta hori ez da ohiko kasua.

Errekurtsoa ebatzi bitartean, interesatuaren oinordetza gerta daiteke, bai *inter vivos* bai *mortis causa*.

m) *Iuris et de iure*⁵¹

Zerga-egitatea, sortzapena, zerga-oinarria, oinarri likidagarria, karga-tasa, zorra zenbatzeko osagaiak, eta *iuris et de iure* presuntzioak.

Aurrez eraturako frogadun aktetan jaso dira *iuris et de iure* presuntzioak, baita agiri publiko zein pribatuak ere, agiriok horien egilearen aurka erabiliz gero.

⁴⁹ 122. or.

⁵⁰ 121., 124., 150. (birritan) eta 277. or.
